eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

PUBLIZITATE ETA HARREMAN PUBLIKOKO GRADUA

2017-2018

# Ana Julia Quezadaren kasua espainiar prentsan: Emakume delinkuentearen eraikuntza


EGILEA: Maialen Musatadi Salegui

ZUZENDARIA: Estibaliz de Miguel Calvo


Gernika, 2018ko maiatzaren 31a

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciatarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

## LABURPENA

Ikerketa honen helburu nagusia espainiar prentsak emakume delinkuentearen eraikuntza sozialean jokatzen duen papera ezagutzea da. Horretarako, Ana Julia Quezadaren kasuan zentratu eta *El País, El Mundo, La Vanguardia* zein *ABC* espainiar egunkariak analizatu dira.

Lana burutzeko metodologia kuantitatibo eta kualitatiboan erabili dira. Hala, edukien-analisi teknika oinarrituz kasuaz hitz egiten duten unitateak aztertu dira. Beraz, medioetan Quezadaren jazoerak izandako kobertura eta tratamendu informatiboa analizatuko da.

**Gako-hitzak:** emakumea, delinkuentzia, hedabideak, immigrantea, espainiar prentsa.

El principal objetivo de esta investigación es conocer el papel que la prensa española ejerce en la creación social de la mujer delincuente. El trabajo se ha centrado en el caso de Ana Julia Quezada y se han analizado los diarios españoles: *El País*, *El Mundo*, *La Vanguardia* y *ABC*.

Para la realización del trabajo se ha utilizado la metodología cuantitativa y cualitativa. Mediante la técnica de análisis de contenidos se han examinado las unidades que tratan el caso. Por tanto, se estudiara la cobertura y el tratamiento informativo que el suceso ha tenido.

**Palabras clave:** mujer, delincuente, medios, inmigrante, prensa española.

The main objective of this investigation is to know the role that the Spanish press has in the social creation of the delinquent woman. The project is focused in the case of Ana Julia Quezada and the following Spanish newspapers have been analysed: *El País*, *El Mundo, La Vanguardia* and *ABC*.

To carry out this project the quantitative and qualitative methodology has been used. Through the technique of content analysis, the units that deal with the case have been examined. Therefore, the coverage and information treatment that the case has had will be studied.

**Key words:** woman, delinquent, media, immigrant, Spanish press.

## ESKER ONAK

Lerro hauen bitartez, ikerketa honetan lagundu nauten pertsona guztiak eskertu nahi ditut.

Lehenik eta behin, nire GRALren zuzendaria den Estibaliz de Migueli eskerrik beroenak eman nahi dizkiot. Lan guztian zehar eskainitako laguntza eta edozein dudaren aurrean erakutsitako prestutasunagatik. Baita, lana hobetzen lagundu nauten zuzenketa eta aholkuengatik.

Bigarrenik, nire bizikide Jon eskertu nahi dut. Eskainitako pazientziagatik, emandako animoengatik eta transmitititutako positibotasunagatik. Batez ere, nigandik gertu izan eta beti entzuteko prest egoteagatik.

Hirugarrenik, nire betiko lagun Bihotza eskertzen dut. Arratsaldeetako kafe kikara artean izandako elkarrizketa hezitzaile eta probetxugarriengatik. Baina, dudarik gabe, behar izandako guztietan emandako sostenguagatik.

Azkenik, Pikara Magazineko kideak emandako laguntza eskertu nahi dut. Izan ere, kalitatezko kazetaritza feminista egiten dutela kontuan izanik, beraiekin kontaktuan jarri eta metodologiaz hitz egin nuen. Hala, beraiek emandako aholkuak lanerako erabilgarriak izan dira.

Eskerrik asko,

Maialen Musatadi

# AURKIBIDEA

1. SARRERA ..... 5
1.1. Lanaren aurkezpena ..... 5
1.2. Ikerketaren helburuak ..... 6
1.3. Hipotesiak ..... 7
2. MARKO TEORIKOA ..... 8
2.1. Kriminologia feminista ..... 8
2.1.1. Teoria klasikoak ..... 8
2.1.2. Teoria kritikoa ..... 10
2.2. Hedabideen funtzioa ..... 12
2.2.1.Hedabideen panoramaren analisia ..... 13
2.2.2. Arrazakeria hedabideetan ..... 14
2.3.Emakume delinkuente gartzelaratuei buruzko datu estatistikoak ..... 17
2.3.1. Emakume homizidak ..... 19
2.4. Estilo liburuak ..... 20
3. METODOLOGIA ..... 23
3.1. Metodologiaren aukeraketa ..... 24
3.2. Analisi kuantitatiboa ..... 24
3.3. Analisi kualitatiboa ..... 26
4. EMAITZAK ..... 28
4.1. Emaitza kuantitatiboak ..... 28
4.2. Emaitza kualitatiboak ..... 37
5. ONDORIOAK ..... 50
5.1. Hipotesiak ..... 50
5.2. Emaitzak ..... 53
5.3. Ikerketaren indarrak eta ahulguneak ..... 54
6. BIBLIOGRAFIA ..... 55
7. ERANSKINAK ..... 59
7.1. Ikerketa kuantitatiboa egiteko taulak ..... 59

# 1. SARRERA

## 1.1. Lanaren aurkezpena

Ondorengo orrialdeetan aurkitzen den ikerketak prentsak emakume delinkuentearen eraikuntza sozialean duen papera zein den ezagutzeko asmoa du. Lehenik eta behin delinkuente kontzeptua definitu beharko litzateke. Izan ere, delinkuentea delitua burutzearen duen subjektua da, delinkuentziaz baliatzen den norbanakoa. Baina, zer da delinkuentzia? Espainiako Errege Akademiak (RAE) ondorengo azalpena eskaintzen du: “Errua, legearen haustea”, “legeak zigortutako akzio edo omisio boluntario edo zuhurtziagabea”.

Era berean, ikerketa aurrera eraman ahal izateko, egilea Ana Julia Quezadaren kasu konkretuan zentratuko da. Ikerketan sakontzen hasi aurretik, irakurlea kokatu ahal izateko, jorratuko den kasuaren nondik-norakoak azaltzea beharrezkoa da:

- 2018ko otsailaren 27an, Nijarren, Almeriako udalerrian, Gabriel Cruz izeneko zortzi urteko umearen desagerpena salatu zen. Bilaketa martxan zegoela, martxoaren 3an, une horretan umearen aitaren (Ángel Cruz) bikotekidea zen Ana Julia Quezadak Gabrielek jantzia zeraman barruko kamiseta zuria aurkitu zuen. Jazoera horrek ingurukoen susmoak berarengana zuzendu eta kasuaren susmagarri nagusi bihurtu zuen. Azkenean, martxoaren 13an, desagerpena salatu eta 12 egunetara, umearen gorpua Quezadaren kotxeko maleteroan aurkitu zuten.

Gauzak horrela, espainiar prentsan gertaeraren jarraipena nabarmena izan da. Gainera, Quezada emakumea eta jatorri dominikarrekoa izateak nolabaiteko balio erantsia izan du. Horregatik, ikerketa honek Espainiako egunkari desberdinek kasuari emandako kobertura eta trataera aztertzearekin bat, prentsa idatziak emakume delinkuente atzerritarraren eraikuntza sozialean daukan papera ezagutzea du xede. Horretarako, Espainia mailan irakurle gehien dituen informazio orokorreko lau egunkari aukeratu dira: *El País, El Mundo, La Vanguardia* eta *ABC.*

Lan akademiko honen marko teorikoa eratzeko hainbat informazio bilatu da. Azterketa honen bidez, genero ikuspuntutik kriminologiaren hastapen eta eboluzioa, medioen agenda eraketa, arrazismoa diskurtso periodistikoetan eta emakume delinkuenteei buruzko informazioa eskuratu da.

Aurreko parrafoan aipatutako literatura azterketa egin ostean lanaren egilea ondorengo ondoriora iritsi da: Espainian, beste Europar herrialdeetan ez bezala, emakume delinkueenteen fenomenoa aztertzen duten txosten gutxi publikatu dira. Gainera, Espainia mailan emakume delinkuenteen inguruan egin eta erabilgarri dauden lanak aurkitu badira ere, ikerketa gehienak emakumeek auzietan izandako sententzietan edota delinkuentziaren datu estatistikoetan oinarritu dira. Era berean, ia ikerketa guztiak emakumeek gehienetan burutzen dituzten delituetan —Patrimonioaren eta Osasun Publikoaren Aurkako delituetan— zentratzen dira.

Aipagarria da, umeak hiltzen dituzten emakumeen kasuez hitz egiten duten ikerketa gutxi batzuk topatu daitezkela (ikusi daiteke Elena Azaola, 2001). Aldiz, ez da umeak erailtzen dituzten emakumeek hedabideetako diskurtsoetan jasotzen duten tratamenduan zentratzen den ikerketarik aurkitu. Horregatik, aurrean dugun GRAL proposamenaren berritasuna aipagarria da; hots, emakume delinkuenteek paperezko prentsan jasotzen duten trataera aztertu eta ezagutu nahi baita.

Era berean, ikerketa hau egiteko motibazioa emakume delinkuenteen inguruko jakin-mina izan da. Zehazki, lana egiten hasi aurretik GRAL honen egileak delinkuentzia femeninoaren inguruan ezer gutxi zekien. Izan ere, emakumeek biztanleria kartzelarioaren portzentaje txikia suposatzen dute eta horrek inbisibilizatu egin ditu (Almeda, 2003). Gauzak horrela, gizartearentzat ikusezin izateak, emakumezkoengan delinkuentzia ematea "antinaturala" denaren ideia sendotu du. Horiek horrela, delinkuentziak herritarren bizi-mailan eragiten duen arazoa dela kontuan izanik, ezinbestekoa iruditzen zait horren inguruan azterketa bat burutzea; emakume delinkuenteen egoera hobeto ulertu eta posible den neurrian ekiditea lor daitekeelako.

### 1.2. Ikerketaren helburuak

Txosten honen helburu orokorra, Espainiako egunkariek Quezadaren kasuaren aurrean izan duten jarrera aztertzea da. Horretarako, atxiloketa egunaren biharamunetik sententziaren biharamunera arte gertaerak izandako jarraipen eta tratamendu informatiboa ikertuko dira. Hala, delinkuentearen figura emakumearena izateak, diskurtso periodistikoaren eraikuntzan duen eragina azaltzen digun diagnostikoa egingo da.

Oro har, ikerketaren helburu zehatzak ondorengoak dira:

1. Aukeratutako egunkarietan kasuari egindako jarraipena aztertu eta konparatu.
2. Informatzerakoan kode deontologikoak errespetatu diren aztertu. Hautatutako egunkarietatik zeinek egin ditu urrapen gehien? Zeinek gutxien?
3. Informatzean Quezadaren nazionalitateari eta bera etorkina izateari eman zaion garrantzia aztertu.
4. Emakume onaren eta gaiztoaren arteko dikotomia sendotzeko egunkariek erabilitako diskurtsoa aztertu.
5. Quezadaren bizitza pribatuaren inguruan eman den informazioa ezagutu (izandako beste bikoteak, familiarekiko erlazioa…).

### 1.3. Hipotesiak

Ikerketa burutu aurretik zenbait hipotesi formulatu dira. Datuak eskuratu ondoren eta ikerketa burutzearekin bat, aurretik planteatutako hipotesiak zuzenak edo okerrak izan diren frogatu ahal izango da.

Lana hipotesi hauetatik abiatzen da:

H1→ Egunkari guztietan Quezada atzerritarra izateari garrantzia handia ematen zaio. Emakumearen nazionalitatea eta atzerritar kondizioa tituluan, azpitituluan edota sarreran agertzen dira.

H2→ Albistearen tratamenduaren bitartez emakume gaiztoaren estereotipoa sendotzen da.

H3→ Albistea ulertzeko beharrezkoak ez diren datu eta informazio ugari ematen da. Horrela, azaldutako kasuei morboa gehitzea bilatzen da.

H4→ Emakumearen perfil sozialaren berri ematen da. Informazioarekin bat emakumearen familia, nazionalitatea, egoera ekonomikoa… buruzko informazioa eskaintzen da.

H5→ Egunkaria zenbat eta kontserbadoreagoa izan, orduan eta albiste gehiago Quezadaren kasuaren inguruan. Fenomeno berdina gertatzen da jazoeraz hitz egiteko eskainitako espazioari (zutabe kopurua).

H6→ Aukeratutako egunkariak kontuan izanik, *El Mundo*k kode deontologikoetan ezarritako printzipioen urrapen gehien egin ditu. Aldiz, *El País*ek printzipio etikoak gehien errespetatu ditu.

# 2. MARKO TEORIKOA

## 2.1. Kriminologia feminista

Ondorengo orrialdeetan aurkitzen den ikerketaren marko teorikoa eratzeko eta emakume delinkuenteen errealitatea hobeto ezagutzeko teoria feministaren inguruan lan egin da. Aipagarria da, emakume delinkuenteen inguruan lan gutxi egin direla eta fenomeno hori justifikatzeko emakumeek delinkuentzia burutzen duten subjektuen portzentajearen parte txikia suposatzen dutela argudiatu da. Ondorioz, historikoki esparru kriminologikoan eman diren lehenengo lanak gizonetan zentratu eta emakume delinkueenteek bizi dituzten arazo zein egoerak gizartearentzat ikusezinak izan dira.

Baina, zientzia kriminologikoaren esparruan emandako eboluzioa nabarmena izan da, hots, 70. hamarkadatik aurrera kriminologia feminista taxutzen hasten da (Zuloaga, De Miguel eta Ortubay, 2017). Ildo horretatik, delinkuentzia femeninoaren xehetasunak aztertzea eta ezagutzea helburu duten lanak argitaratuko dira. Horrela, orduraarte izandako emakume delinkuenteen inguruko teoria sexisten kritika emango da. Generoan fokoa jarriz, sistema patriarkalak delituen buru diren emakumeei eta gizonei era desberdinean eragiten dietela azpimarratzen dute.

### 2.1.1. Teoria klasikoak

Kriminologiaren teoria klasikoan emakume gaizkileen fenomenoari erantzuna emateko egindako ikerketek ezaugarri biologiko, fisiologiko eta psikologikoetan dituzte beraien azalpenak. Elisabet Almedak (2002; hemen aipatua: Almeda, 2003) literatura kriminologiko eta soziologikoan emakumeen gaia lantzen duten lehenengo positibistak (Cesare Lombroso eta Guglielmo Ferreiro, 1895) eta funtzionalistak (William Isaac Thomas, 1967; Pollack, 1961) sailkatzen ditu.

Emakumeen delinkuentzia azaltzeko lehenengo saiakera Lombroso eta Ferreirok (1895; hemen aipatua: Canteras, 1990) idatzitako "*The Female Offender*" ikuspuntu biologistan zentratutako liburuan aurkitzen dugu. Beraien teoria zientifikoa emakume eta gizon delinkuenteen arteko konparaketa eginez eratzen dute. Liburuan emakume delinkuentea gizonezkoa baino gutxiago eboluzionatua dagoela argudiatzen da. Delinkuentzia femeninoa anormaltasun bikoitza kontsideratzen dute, izan ere, beraien "benetako naturaren" zein gizartean duten rolaren aurka jokatzen dutela esaten da. Hala, Lombroso eta Ferreirok emakume kriminalak salbuespen bikoitza (biologiko eta soziala) direla esan eta "munstro" bezala definitzen ditu.

Psikoanalisiaren aita den Sigmund Freudek (Canteras, 1990) emakume delinkuentea izaki "anormala" zela defendatzen zuen. Bere ustez, gizonen genitalak ez izateak sortzen duen frustrazioak, hots, penearen inbidiak emakumea delitua burutzera eramaten du. Emakumeak «egoa» guztiz garatu gabe izan eta garapen hori emateko amatasunaren zein emaztearen papera burutu behar duela dio. Teoriaren bitartez, organo sexual maskulinoak ez izateagatik emakumea gizona baino gutxiago dela adierazten da.

Bestalde, tesi funtzionalisten artean Thomas William Isaacren (1967; hemen aipatua: Canteras, 1990) analisia dugu. Bere lanean ikuspuntu biologistak pisu handia badu ere, faktore psikosozial eta sozioestrukturalek giza portaeran izan dezaketen influentziaz hitz egiten da. Emakumeak gutxiago eboluzionatuta daudela defendatu eta sozializazio familiarraren uneak gizarteratze prozesuan duen garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, emakumeek «maitasunaren instintu biologikoak» dituztela esan eta instintu horiek familian garatzearen ezintasunak emakumea delitua egitera edota prostituzio praktikatzera bultzatzen duela argudiatzen da. Egilearen ustez, emakumeak duen maitasuna eman eta jasotzeko nahiak prostituzioa edota beste delitu sexual bat burutzera eramango dio. Hau da, bere teoriak, delinkuentzia femeninoa esparru sexualera mugatzen du.

Ikuspuntu sozialagoarekin Otto Pollackek (1961, hemen aipatua: Canteras, 1990) landutako *"The Criminality of Women"* obra aurkitzen dugu. Bere lanaren arabera, emakumeak biziko dituen krisi biologikoetan gizonezkoa baino gutxiago dela adituko du. Gutxiagotasun sentimendu horrek emakumeari mendeku nahia izatea eragin eta delituak egitera bultzatuko dio. Gainera, Pollackek emakumeen delinkuentzia tasa txikiagoa azaltzeko "zalduneriaren tesiaz" (Almeda, 2003) hitz egiten du. Teoria horren esanetan, emakumeek epaile zein poliziak seduzitzeaz baliatuz Zigor Sisteman gizonezkoek baino tratu onuragarriagoa jasaten dutela dio. Gezur eta faltsukeriekin bidez emakumeek delituak ezkutatzen dituzte, hortaz, zifretan ageri ez bada ere, emakumeen kriminalitate tasa altuagoa dela dio. Tratu onberagoa lortzeko gizartean paper bat antzeztu eta instituzioek beraien delituak ezkutatzen laguntzen dietela dio.

Aipagarria da, Concepción Arenal (1991; hemen aipatua: Almeda, 2003) XIX. mendeko espainiar legelariaren pentsamendua garaiko ideia sexistetatik aldentzen dela. Bere idatzietan emakumeek kartzeletan bizi dituzten baldintza negargarriak salatu eta zigor sistema kritikatzen du. Emakume zein gizon gatibuek presondegietan tratu berbera jaso behar dutela argudiatzen du. Halaber, emakume eta gizonek inteligentzia zein kondizio moral berdina dutela dio.

Arestian ikusitako teoria guztien arabera, emakumeak gizartean duen rola betetzen ez duenean gabezia biologiko edota psikologiko bat duela aditzera ematen da. Ikerketetan ageri diren argumentuak ideia sexista eta diskriminatzaileetan (emakumeak gizonezkoak baino gutxiago direnaren ustea) oinarrituak dira.

Laburbilduz, Laura Macayaren (2013) hitzak gogora ekarriz, teoria klasikoek generoaren konposizio dikotomikoan biolentzia maskulinitatearen atributua dela nabarmendu eta emakumeei amatasunaren zein umeen zaintzaren ideia indartzen dituen kondizio bakezalea eta zaintzailea ematen zaie. Beraz, biolentziaz baliatzen diren emakumeen jarrera "antinaturaltzat" jotzen da. Normatik irteten diren emakumeei gizarteak "sorgin", "kastratzaile", "emakume gaizto" edota "puta" bezalako etiketa sozialekin definitzen die. Hala, gizarteak ezarritako roletatik kanpo jarduten duten emakumeak adjektibo gutxiesgarriez definitzen dira.

### 2.1.2. Teoria kritikoa

60.hamarkadan «Emakumearen Askatasunen Mugimendua» izenarekin ezagutua den emakumeen diskriminazioaren aurka egitea xede duen giza-mugimenduaren sorrera ematen da. Kriminologian klasikoan (zientziaren beste esparruetan bezala) emakumea inbisibilizatua izan dela kritikatu eta horrek kriminalitatearen azalpen sozial eta psikosozialen gorakada dakar. Horrela, 70. hamarkadan arestian aipatutako teoriei eta gizarteak barneratuak dituen pentsamendu sexistei aurre egingo dion Kriminologia Kritikoa emango da (Almedak, 2003).

Beraz, kriminologia kritikoak emakume delinkuenteetan fokoa jarri eta sexu-genero arteko erlazioa desberdintzearen garrantzia azpimarratzen du. Horrela, orduraarte barneratuak diren estereotipo sexisten eta emakumea gutxiesten duten teorien aurka egiten da. Gainera, patriarkatua ikerketen erdigunean jartzen da; dominazio sistemaren organizazio hierarkiko, formatuak eta lengoaiak modelo androzentrikoa jarraitzen duela azpimarratuko da (Fuller, 2008).

Andres Canterasek (1990) ondorengo sailkapena egiten du:

- Ikuspuntu estruktural-funtzionalista batetik «Anomia» (Merton, 1938-1969), «Asoziazio Diferentziala» (Cressey, 1960 eta Edwin H. Sutherland, 1939) eta «Subkultura» (Cohen, 1961) teoria soziologikoak aurkitzen ditugu.
- Ikuspuntu interakzionalista-sinbolikoan «Kontrol Sozialaren Teoria» (Becker, 1963; Lemert, 1967; Miralles, 1982…) aurkitzen dugu.

Asoziazio Diferentzialaren Teoriaren sortzailea Edwin H. Sutherland (1939; hemen aipatua: Canteras, 1990) soziologoa da. Teoria, kriminalitate femenino gutxiago dagoela azaltzeko emakume eta gizonen arteko sozializazio kondizio desberdinean oinarritzen da. Autorearen ustetan, portaera kriminala sozializazioaren bitartez ikasia da. Talde txiki eta pertsonal batean izandako komunikazioaren ondorioz, karrera kriminala burutzeko beharrezkoak diren teknikak beste pertsona batzuengandik ikastea lortzen dela argudiatzen du. Era berean, portaera desbideratua ikasteko beste pertsona desbideratu batzuekin erlazionatu eta komunikatu behar da. Puntu horretan, emakumeek kontrol sozial handiagoa jasan eta horrek kriminalitatea ikastea eragozten die.

Cohenek (1960; hemen aipatua: Canteras, 1990) Subkulturaren teoriaz hitz egiten du. Berak eraikuntza sozialaren maila bakoitzean sozializazioa desberdina dela azaltzen du. Klase ertainean ematen diren arau eta baloreak gizarte osoarentzako erreferentzia badira ere, klase baxuenetakoek posibilitate berdinak ez dituztela dio. Aukera berdinak ez izateak medio ilegitimoak eta bandak sorraraziko dituela adierazten du.

Bestalde, Estatuak bere instantzia formalen bitartez ezartzen duen kontrolaz hitz egiten duen Kontrol Sozialaren Teoria aurkitzen dugu. Emakumeen delinkuentzia tasa estatistiko txikiagoa azaltzeko, emakume eta gizonengan kontrol sozialaren proiekzio desberdina egiten dela argudiatzen da. Teoriak bere baitan Kontrol Informala —familia, eskola, lana edota osasun arloa— eta Kontrol Formala —Estatuak kontrolatzen dituen instantzia polizial, judizial, penitentziario eta klinikoa— hartzen ditu. Emakumeei Kontrol Informalaren bidez neurri gogorrago eta eraginkorragoak ezartzen zaizkie eta

horrek Kontrol Formalaren instantziak oso gutxitan beharrezkoak izatea eragiten du (Larrauri, 1995; hemen aipatua: Azaola, 2001).

Kontrol honek emakumeei gizartean ezarri zaien papera mantentzea du xede, pasibo eta otzana izanik legetik ez aldentzea. Lehenik, esfera mikrosozial informalaren bidez, emakumeari portaera arauak irakatsi eta igortzen zaizkio, gizartean izan behar duen papera barneratzea bilatzen da. Ondoren, portaera patroi horiek ez ikastean eta gizarteak definitu duen papera ez betetzean, plano makrosozial Formala funtzionatzen hasten da. Aipatutako kontrol mekanismo biek porrot egitean delinkuentzia ematen da.

Teresa Mirallesen (1983; hemen aipatua: Canteras, 1990) aburuz, kontrol forma guztietatik efikazia gehien duten eragileak familia eta eskola dira, izan ere, tradizionalki femeninoak diren plano afektibo-amoroso eta etxekotasunaren funtzioak mantentzen dituzte. Gizonek esfera publikoan aurkitzen den ondasunen ekoizle nagusien papera duten bitartean, emakumea esfera pribatuan dagoen eragile ideologiko eta biologikoa izatera mugatzen da.

Aipatutako teoria kritikoek bat egiten dute ondorengoa ideian: kriminalitate femeninoaren tasa baxua emakumeak gizartean bizi duen diskriminazioaren ondorioa da. Beste modu batera esanda, estruktura sozialean emakumeak okupatzen duen posizioa gizonak okupatzen duenarekin konparatuz gero diskriminazioa aurkituko dugu.

Kriminologia kritikoan delinkuentzia femeninoak bizi duten marjinazio bikoitzaz hitz egiten da, emakume izateaz gain delinkuenteak baitira. Beraien generoari atxikitutako beharrizan sozial eta esfera publikoaren ukapen iraunkorrak beraien jarrera kriminala markatu du, posizio sozial bikoitza ezarriz: emakumea eta delinkuentea (Canteras, 1990). Izan ere, irudikapen kolektiboan delinkuentzia gizontasunarekin erlazionatua dago eta emakumeak biolentziaz baliatzerakoan jarrera maskulinoa hartu, beraien feminitateak ezarritako arau sozialekin hautsi eta esfera-publikoaren parte bihurtzen dira. Orduan, estereotipo femeninoak (familiaren zaintzaile, maitasun emaile…) ez dira kriminalitateari ematen zaizkion kualitateekin bateragarriak.

Teoria kritikoaren ikuspuntutik egindako ikerketa desberdinetan preso dauden emakume guztiek ezaugarri komun bat dutela azpimarratzen da: ikuspuntu ekonomiko eta sozial batetik ikusita gizarteko sektore marjinatu eta marginalen parte dira (Almeda, 2003). Izan ere, delinkuentzia femeninoa hiri handietako toki apal eta pobreenetan ematen da, norbanakoen izaera kontuan izan gabe, gizarte desantolatu, arraza- eta etnia-segregazioagatik bereizten diren zonaldetan (Shaw eta Mckay, 1942; hemen aipatua: De la Cuesta, 1992). Gauzak horrela, kartzeletan ijito, immigranteen eta orokorrean txiroak diren emakumeen irudikapen handia dago (Juliano, 2011). Hortaz, emakumeen delinkuentziaz jarduteko pobrezia, esklusio soziala, hezkuntzaren gabezia, arrazakeria eta beste zenbait baldintza soziokulturalez hitz egin behar da (Yugueros, 2013).

Legalitatearen esparruan, zuzenbidea maskulinoa eta sexista dela kritikatzen da. Legeak izaera diskriminatzailea dute eta emakumeei baliabideak ukatzen zaizkie. Elena Larraurik (1995; hemen aipatua: Macaya, 2013) salatzen duen bezala: "modu neutralean formulatutako legeak ikuspuntu maskulino batetik aplikatzen dira eta erreferentzia neurri

bezala gizonezkoak hartzen dituzte (klase ertaineko gizon zuriak)". Horren harira, kartzela femeninoetan egin diren ikerketa desberdinek zigor kontrola paternalista izateaz gain, genero eta klase izaera duela ondorioztatzen dute (Almeda, 2003). Gai honen inguruan 2.3. puntuan sakonduko da.

### 2.2. Hedabideen funtzioa

Hedabideak gizartearen isla dira, ez dira soilik informazioa igortzeko tresna hutsak. Komunikazio medioek ideiak transmititzeaz gain, iritzi publikoaren informazio zein formazioa ahalbidetzen dute (Fuentes, 2005). Hau da, mass medietan gizakiek errealitatea zein mundua ulertzeko duten era azaldu eta gizarteko norbanakoen iritzi zein pentsamenduetan influentzia zuzena gauzatzeko ahalmena dute.

Komunikabideek duten ahalmenaren inguruan hitz egiten du Lohitzune Zuloagak (2014) *"El espejismo de la seguridad ciudadana"* liburuan. Bertan, «*inseguridad ciudadana*» fenomeno kolektiboaz hitz egiten da. Bizitza kolektiboan historikoki eman da beldurra eta XXI. mendean bizi den ikara prozesu sozioekonomikoak eta politikoak interpretatzen ez jakiteak sortzen duen ziurgabetasun sentsazioan datza. Beldur kolektiboa beraien artean erlazioa duten beldur konkretuez osatzen da; beldur konkretuak gehienetan zerbait galtzearen (lana, osasuna...) edota delituen biktima izatearekin lotzen dira.

"*Inseguridad ciudadana"* kontzeptuak, delinkuentziarekin lotura duten delituen biktima izateak sortzen duen beldurraren sentimendu kolektiboa deskribatzen du[1]. Sentimendu horren barnean dimentsio objektiboak (delituen-tasa) eta subjektiboak (biktima izatearen pertzepzioa) aurkitzen dira. Hala, populazioak eratzen duen delinkuentziaren ebaluazioa ez da era razionalizatuan egiten, hau da, ez da estatistika kriminaletara jotzen. Jendeak delituzko errealitate eratzerakoan hainbat faktore hartzen ditu kontuan: jendearen iritziak, norberaren inguruaren ebaluazioa, hedabideek gai honi emandako garrantzia eta partidu politikoek arazoari emandako prioritatea.

Agenda publikoaren, politikoaren edo mediatikoan bidez, konflikto jakin batek problema sozialaren nabarmentasuna hartu dezake. Kontu bat problema bezala ezartzean, kolektiboki eragiten hasi eta gizarteak konponbidea eskatzen duen arazoa izatera pasatzen da. Problematika bat agenda publikora eransteko ez du kaltetuen zifrarekin edota gaiaren larritasunarekin erlazio esturik izan behar; komunikabideek gatazka sozialei eginiko selekzio eta tratamendua, instituzio politikoen interesak, edota agenda eragiteko mugimendu sozialek duten gaitasunak definituko dute problema.

Hortaz, medioek segurtasun ezaren arazoa gaurkotasunezko beste problema batzuen gainetik lehenesteko gaitasuna dute. Izan ere, iritzi publikoaren atentzioa tema jakin batzuetara bideratu dezakete, gizarte mailan ematen den segurtasun falta hori gairik garrantzitsu zein problematiko bezala azalduz. Beraz, komunikabideek eta partidu

[1] Beldurra bakarka esperimentatutako esperientzia, sozialki eraikia eta kulturalki partekatua da (Reguillo, 2000; hemen aipatuta: Zuloaga, 2014).

politikoek iritzi publikoan eta gizartean beldur sentsazioa sortzeko duten eraginaz hitz egiten du.

Barry Glassnerrek (2009; hemen aipatua: Zuloaga, 2014) bere aldetik, beldurraren kulturan bizi garela dio eta hori justifikatzeko gizartean masiboki ematen diren izuetan mass mediek jokatzen duten rolaz ohartzen da. Horiek horrela, beraien audientziak handiagotzeko helburuarekin medioek historia sentsazionalistez baliatzen direla dio soziologoak. Izan ere, albiste biolentoak maiztasunez igortzen dira eta jendearen atentzioa deitzearen bitartez rating altuagoak lortzen dituzte. Horregatik, beldur faltsuak legitimoetatik bereizten ikastea garrantzitsua dela dio, beldur faltsuak herritarrei zuzenean eragiten dieten ohikoagoak diren arazo sakonagoak ezkutatzen baititu.

Zuloagak (2014) Agenda Setting Teoria agenda politiko eta publikoan medioek duten inpaktua hoberen azaltzen duen teoria bezala aurkezten digu. 1972an McCombs eta Shawk *agenda setting* kontzeptua eratzen dute. Teoriak mass medioen agenda eratzean publikatuko diren albisteen aukeraketa eta hierarkizazioan oinarritu eta albisteek iritzi publikoan zein neurritan eragiten duten aztertzen du. Komunikabideek iritzi publikoan izango diren gaiak erabakitzen dituzte, tema bati ematen dioten tratamenduak pentsamendu eta ikuspuntu sozialean erabateko eragina izango baitu. Hortaz, komunikabideek iritzi publikoaren atentzioa zuzentzeko eta agenda mediatikoaren parte diren gaiak agenda politikora lekualdatzeko boterea dute. Hala, gai jakin baten inguruan emandako albisteen errepikapenak, arazo hori iritzi publikoak eztabaidatzea eragiten du. Errepikapenaren bidez, arazoa esparru politikoan ezagutzera eman eta agenda politikoaren parte bihurtzen da.

Aipagarria da, medioetan kriminalitatearen errealitate distortsionatua ematen da eta, informazioa plazaratzerakoan aukeratutako albisteei ematen zaien trataerak estereotipo baita aurreiritzi deliktiboen transmisioan eta garapenean laguntzen du (Fuentes, 2005). Horrela, kriminalitatearen irudi estereotipatu bat sortzen da eta herritarrek beraien buruetan delinkuentzian pentsatzean kanpotarrak edota etnia desberdinetako pertsonak imajinatzen dituzte. Beraz, informazioa igortzean albisteei ematen zaien tratamendua zaintzea ezinbestekoa da, hots, trataerak publikoak duen delinkuenteen edo biktimen irudia definituko baitu.

### 2.2.1.Hedabideen panoramaren analisia

Mass media eta generoaren gaia aztertzen duten ikerlan desberdinak emakume kazetariek komunikabideetan duten partehartzean, beraien rolan edota emakumezkoek egiten duten hedabideen kontsumoan zentratzen dira. Hortaz, lan desberdinek komunikabideetan ematen diren genero desberdintasunak azaltzen eta identifikatzen dituzte.

Emakumeek hedabideetan duten presentzia begiratuz, Euskal Herriko nahiz Espainia mailako komunikabide desberdinen jarduten duten langileen artean sexuen araberako ezberdintasun handiak aurkitzen dira. Hala, medioetako goi-karguetan, hots, kontrol, zuzendaritza eta kudeaketa postuetan, gizonezkoen presentzia orokorra aurkitzen da. Goi-mailako postuetan ez daude emakumezkoak eta egotekotan oso errepresentazio txikia

suposatzen dute (%4 ingurukoa). Emakumeak erabakitzeko ahalmena duten postuetatik aldenduak direnez, hedabideen begiradan maskulinizazioa ematen da.

Aurretik aipatutakoaren harira, 1994. urtean Emakunde Erakundeak burututako "Emakumeen parte hartzea Euskal Herriko Hedabide eta Publizitatean" txostenean plazaratutako datuetan ikusi daiteke Euskal egunkarietan emakumeek %30eko parte hartzea dutela. Baina, kategoria laboralak gorantz egin ahala datu horiek beransko joera daukate, hau da, egunkarien zuzendari eta goi karguak gizonezkoek betetzen dituzten bitartean, emakumeek gehien bat administrazio lanetan jarduten dute.

Medioetan ageri diren albiste eta informazioak esfera publikoa osatzen duten pertsonaietan zentratzen dira. Esfera publikoa maskulinoa den bitartean emakumea esfera pribatuan aurkitzen da. "Kazetaritza lanbideak errealitatearen begirada androzentrikoa praktikatzen du, hurbilketa objektiboa edo neutroa den ustearekin" (Bach et al., 2000: 27). Beraz, informazioaren protagonistak gizonezkoak dira, esparru desberdinetan lider bezala aurkeztuak direnak. Bestaldean, emakumeak aurkitzen dira, beraien presentzia ez da aipatzen eta esparru desberdinetan dauden emakumezko adituei ez zaie ahotsik ematen. Hala, emakumeak mundu pribatura mugatu dira eta liderrak izateko posibilitate gutxiago izan dituzte. Hortaz, informazioaren protagonista, aktore zuzen edo informazio iturri izateko posibilitatea ere gutxiagotzen zaie. Hau da, emakumeak inbisibilizatu eta bigarren maila batean azaltzen dira. Horrela, emakumeak komunikabideen diskurtsotik aldenduak izan eta anonimoak dira.

Aipagarria da, informazioaren sujetu eta protagonista diren emakumeak izendatzeko erabiltzen diren kriterioak. Batzuetan izen eta abizenekin identifikatzen bazaie ere, maiztasun gehiagorekin ponte-izenarekin, inizialekin edota pertsonaia anonimo («emakume» bat, «auzokide» bat…) bezala izendatuak dira (Bach et al., 2000). Gehigarria da, albisteetan sarritan emakumeei erreferentzia egitean beraien izena aipatu ere ez dela egiten eta horren ordez familiako gizonezko batekin duen senidetasunagatik identifikatzen dela (*"esposa de", "hija de", "viuda de"*…). Horrela, emakumearen identifikazio txarra ematen da, inbisibilizatu edota bigarren maila batean kokatuz.

Garrantzitsua da hizkuntzaren erabileraz hitz egitea, izan ere, hizkuntza baztertzailea da eta generazioz-generazio transmitituak izan diren ohitura zein pentsamenduen bereizgarriak azaleratzen ditu. Lengoaian emakumea ikusezin bihurtu eta konfusioa sortzen duen maskulinizazio generikoa ematen da. Generalizazio horrek, emakume edo gizonezkoez hitz egiten ari diren jakitea ezinezko bihurtzen du (los alumnos, los jueces…). Hau da, taldeen barnean emakume gehiago izan arren, konjunto guztia deskribatzeko maskulinoa erabiliko da. Era berean, "*hombres*" hitzak gizakia irudikatzen duen bitartean "*mujeres*" berbak femeninoari soilik egiten dio erreferentzia.

### 2.2.2. Arrazakeria hedabideetan

Arestian aipatu den bezala, komunikabideen diskurtsoek gizarteko kideetan influentzia zuzena jorratzen dute. Horregatik, aurrean dugun atal honetan arrazakeriaren fenomenoan hedabideek jokatzen duten papera azaldu nahi da. Medioek ematen duten immigrazioaren irudiak iritzi publikoan daukan influentzia ikusi eta horrekin batera sortzen diren atzerritarren aurkako aurreiritzi zein estereotipoez hitz egingo da.

Gogoratu beharra dago, Teun A. van Dijk (2007) azaltzen duen bezala, arrazakeria ikasia dela eta pertsonek sozializazio praktiken bitartez ikasten dutela. Praktika horien artean eliteetatik sortutako diskurtso politikoak eta komunikabideen diskurtsoak funtsezko papera jokatzen dute, baita aurreko bietatik eratorriak diren hizketaldiek ere. Halaber, egileak praktika arrazistak, ezagutza eta diskurtsoa lotzen ditu. Izan ere, aurreiritziak testu eta hizketaldien bidez barneratzen baitira —lehenik familia eta lagunen artean izandako solasaldien bidez; ondoren liburu, telebista edota egunkarietan ikusitakoaren bidez—.

Espainiak esplizituki arrazista edota eskuin-mutur bezala definitua den prentsarik ez izateak —Europako beste herrialde batzuetan gertatzen da, Alemania edota Erresuma Batuan adibidez— ez du esan nahi gizartean arrazismoan hedatzen laguntzen ez duenik. Izan ere, hedabideetako diskurtsoetatik hedatuak diren pentsamenduak ondorioz gizarteak sarritan erlazionatzen ditu delinkuentzia eta atzerritarrak. Hala, komunikabideetan estereotipo desberdinen bidez atzerritarren kriminalizazioa eman eta delinkuentziaren handiagotzeak immigrazioaren hazkuntzarekin gordetzen duen erlazioaz hitz egiten da (Wagman, 2002).

Horren harira, Mario De la Fuentek (2006) immigrazioaren inguruko albisteak bi ideia nagusiren inguruan eratzen direla argudiatzen du:

- Immigrazioa masiboa da: baieztapen horrek kontrolatzeko zailak diren immigrante boladak mendebaldera datozenaren ideia defendatzen du.
- Immigrazioa arazo bat da: atzerritarrak arazo sozial ugariren jatorria dira. Ideia honek beraien kultura eta gure kulturaren arteko aldea berdintsua ez dela azpimarratu eta atzerritarrak dauden tokietan delinkuentzia ematen dela argudiatzen du.

Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuak kontsultatuz, Espainian 2017. urteko populazio ofiziala 46.572.132 herritarrek osatzen dutela eta horien artean 41.999.325 espainol eta 4.572.807 atzerritar daudela ikusi daiteke[2]. Hortaz, immigrazioak populazio guztiaren %9,8a osatzen du. Beraz, nahiz eta migranteen inbasioaz hitz egitea guztiz lekuz kanpokoa izan, prentsan migrazioa fenomeno masiboa denaren ideia transmititu eta horri konponbidea bilatzeko instituzioetatik lan egiten ari direla erakusten da (Santamaría, 1994).

Horren harira, Teun A. van Dijkek (2007) hedabideetan europarrak ez diren immigranteen aurkako arrazismo diskurtsoa ematen dela argudiatzen du. Izan ere, medioek atzerritar eta minoriei buruz informatzean egiten duten tratamenduak aurreiritzi negatiboak sortzen ditu; ezaugarri negatiboen bidez —biolentzia, krimena, perbertsioa eta desbideratze kulturala nabarmenduz— etnia desberdinetako jendea arazo eta amenaza bezala aurkezten dela esaten du. Atzerritarrak legez kanpo jarduten duten pertsona arriskutsu bezala aurkeztu eta beraien inguruan igortzen diren mezuak gertakari negatiboekin lotzen dira: droga trafikoa, borrokak, lapurretak… (Santamaría, 1994).

[2]http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177012&menu=ultiDatos&idp=1254734710990

Albisteetan ematen den idazketak inplizituki arrazismoa hedatzeaz gain, diskurtso alarmistek immigrazioa arazo bezala definitzen dute. Hala, immigrazioaz diharduen medioen diskurtsoak bi figuren arteko oposizioak sortutako eskema jarraitzen du: "*Gu*" edo "*Nosotros*"/ "*Besteak*" edo "*Otros*" (De la Fuente, 2006). Besteak desberdinak direnaren ideia hedatzen da, gure gizartearen eredua "norma" bezala ezarri eta immigranteak "normalizazio" horretatik aldentzen dituzten gabezia (hizkuntza ezjakintasuna, ikasketa falta…) eta desbideratzeengatik (seme-alaba ugari, erlijio desberdina…) definitzen dituzte (Santamaría, 1994). Hala, albisteetan "*beraien*" (pertsona migratuak) egite txarrak eta "*gure"* (gizarte hartzailea) akzio onak nabarmentzen dituzten gaiak azaltzen dira (Van Dijk, 2007).

Hegoaldeko herrialdeetan gertatzen diren eta bertako jendeak pairatzen dituen gauzei buruz hitz egiten jardutean informatibo tradizionalen diskurtsoetan exotismoa eta sentsazionalismoa nahasten dituztela, hots, pobrezia, biolentzia eta desberdintasunak naturalizatzen baitituzte (ACSUR, 2010). Etorkinek jatorrizko herrialdeetan bizi dituzten egoerak latzak azaltzen dira: gosetea, biolentzia, analfabetismoa… baina bizipen horiek kausa naturalek sortuak izango balira bezala azaltzen dituzte. Hortaz, informazioa ez da kontestu historiko zein sozialean azaltzen, herrialde horietan pairatzen duten neokolonialismo eta dependentzia alde batera utziz (Santamaría, 1994).

Gainera, Europako erredakzioak gehienetan gertatzen den bezala, egunkariak profesional "zuriz" osatuak daude. Medioak WASP modeloa oinarri izanik (zuria, anglosaxoia eta protestantea) ikuspuntu androzentriko eta etnozentrikoa erreproduzitzen dute (ACSUR, 2010). Minorien parte diren kazetariak diskriminatuak dira eta ez da beraien errepresentaziorik ematen. Horrek, gutxieneko kolektiboi buruz informatzerakoan interes txikiagoa eragiteaz gain, beraiek bizi duten errealitateaz dagoen jakintasuna ere mugatzen du.

Antzeko zerbait gertatzen da informazio iturri direnean, minorietako kideen esanak ez baitira fidagarritzat hartzen eta sarritan inbisibilizatuak izaten dira. Santamariaren (1994) hitzak gogoratuz, atzerritarrei ez zaie beraien egoeraz zein arazoez gogoeta egiteko ezta informazio iturri izateko aukerarik eskaintzen, hau da, etorkinen ahotsak isilarazi eta beraien egoeraz hitz egiten aditu autoktonoak jarduten dute.

Baina, emakume immigranteak komunikabideetan daukan paperan pentsatzen badugu arestian aipatutako inbisibilizazioa areagotu egiten dela ikusiko dugu. ACSUR (2010) erakundeak eratutako txostenak emakume migranteak medioetan inbisibilizazio bikoitza jasaten duela dio: lehenik, emakume izateagatik; eta bigarrenik hegoaldeko herrialdeetan, hots, herrialde pobre eta behardun bezala ezagutuak diren lurraldeetan jaio izanagatik. Emakumezko atzerritarrei kondizio berbera duten gizonezkoei baino denbora eta espazio gutxiago eskaintzen zaie.

ACSURren ikerketan irakurri daitekeen bezala, hedabideen testuetan emakume migratuak gehienbat prostituzioaren okupazioarekin erlazionatuta agertzen dira. Bertan, emandako tratamendu sentsazionalista eta kriminalizatuen bidez, prostituten estigmatizazioa ematen da. Bestalde, genero biolentzia bizi duten atzerritarrak mass medien paternalismo kultural eta etnozentrikoaren ikuspuntuak biolentzia eta jatorrizko

kulturen arteko erlazioa sortzen dela diote. Hortaz, emakumezko migratuei autonomia eta botere urritasunarekin errepresentatzen zaie.

### 2.3.Emakume delinkuente gartzelaratuei buruzko datu estatistikoak

Lanarekin aurrera egin ahal izateko, Espainiako presoen populazioaren inguruko hainbat datu ezagutu behar dira. Atal honi forma emateko Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak eta Emakumearen Institutuak eskainitako Espainiako populazio delinkuentearen datu estatistikoetara joko dugu.

Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak argitaratutako azkeneko ikerketan, 2016. urteko txostenean ikusi daitekeenez, emakume eta gizon delitugileen artean alde handia dago. Urte horretan zehar 1.090.181 biktimizazio erregistratu ziren, horietatik 82.246 kasu biolentzia familiarrarekin eta beste 60.847 genero biolentziarekin erlazionatuak dira. Hala, biolentzia familiarrean erreparatu eta biktimak sexuen arabera banatuz, biktima guztietatik 10.641 pertsona gizonezkoak eta 71.605 pertsona emakumezkoak direla ikusi daiteke.

2016. urteko Espainiako presoen biztanleriari begira, genero arteko desberdintasun nabarmena ikusten da. Estatuan 59.589 barne-preso daude eta horietako %92,54a, hau da, 55.141 preso gizonezkoak dira. Aldiz, emakumeek %7,46a irudikatzen dute, 4.448 preso hain zuzen. 1990-2016 urteen bitartean izandako bilakaerak emakume presoen populazioaren gorakada erakusten badu ere, portzentajea konstante mantendu da, 1994an %9,46ko maximoarekin eta 2016an %7,46ko minimorekin. Aipagarria da, 1.289 emakume atzerritar gatibu daudela, hots, emakume presoen %29a dira. Honen harira, SPACE I (2016) txostenean argitaratutako datuetan ikusten denez, Espainia emakumezko preso gehien dituen Europar Batasuneko herrialdea da. Ondoren, emakumezko gatibuen kopurua kontuan izanik, Erresuma Batua (3.904), Alemania (3.753) eta Polonia (2.379) sailkatzen dira.

Datuak erreparatuz, emakumeek biolentzia eta larritasun gutxiagoko delituen buru direla ondorioztatu daiteke. Izan ere, delituen izaerari begira, emakumezko atxilotuen eta leporatuen kasu gehienak Patrimonio eta Ordena Sozioekonomikoaren[3] Aurkako (lapurretak, ebasketa…) zein Osasun Publikoaren Aurkako (droga trafikoa…) delituak burutzeagatik izan direla ikusi daiteke. Egun, emakumezko hamar presotatik zazpi (%68,8a) bi delitu mota horiengatik dago gatibu.

Patrimonioaren Aurkako delituen talde nagusian dagoen lapurretaren azpitaldea da kartzelaratuen kausa ugariena. Bestalde, Osasun Publikoaren aurkako deituengandik zigorra betetzen daudenen artean drogaren trafiko eta kontrabandoarekin erlazioa duten

[3] Espainiako Zigor Kodearen 1995eko Lege Organikoaren II Liburuko XXIII Tituloaren barnean Patrimonio eta Ordena Sozioekonomikoaren aurkako delituak aurkitzen dira. Bere baitan, besteak-beste, ondorengo delituak hartzen ditu: lapurreta; ebasketa; estortsioa; usurpazioa; iruzurra; egitearen frustrazioa; kaudimen zigorgarria; konkurtso eta enkante publikoen prezioen aldaketa; kaltea; delitu sozietarioak; ondasunen zuritze eta hartzea…

kasuak aurkitzen dira. Elisabet Almedaren (2003) aburuz, bi delitu mota horien artean komunean dagoen eragile nabarmena drogaren inguruko jarduerak (kontsumoa eta trafikoa) dira; beste faktoreak garrantziaren arabera honela ordenatzen ditu: arazo ekonomikoak, psikologikoak eta irabazi-asmoa. Beraz, espetxeratuek delitua burutzeko duten motibazioa zein kausa drogen-menpekotasuna da, gehienak drogak erosi zein kontsumitu ahal izateko egindako delituak baitira.

Era berean, Estibaliz de Miguelek (2015) emakume presoen artean droga kontsumitzaileak edota kontsumitzaile ohien errepresentazio handia aurkitu daitekeela azpimarratzen du. Bere ideiei jarraikiz, kartzelaratutako pertsonak gizarteko sektore ahulenen parte direla dio. Hau da, presondegietan droga trafiko internazionaleko maila baxuenean aurkitzen diren droga garraiatzen duten emakumeak edota beraien kontsumoa ordaindu ahal izateko kriminalitate txikiko zirkuituak burutzen dituzten kontsumitzaileak aurki daitezkeela dio.

Ildo beretik, Dolores Julianok (2011) espainiar kartzeletan aurkitzen diren emakume immigrante gehienak Osasun Publikoaren Aurkako delituak burutzeagatik, konkretuki "*mula*" edota "*correo*" bezala jardun eta herrialdera eskala txikiko droga garraioa burutzeagatik preso daudela dio. Horiek horrela, droga delituak atxikitzen zaizkien emakumeei buruz hitz egiten dugunean, drogen inguruko jardueretan ematen diren botere gabeko testuinguruei buruz hitz egiten ari garela esan daiteke.

Zigor sisteman sakonduz Almedak (2003) Espainian emakume gatibuak hiru motatako presondegietan banatuak direla dio:

- Gizonezkoen kartzeletan dauden modulu txikiak
- Gizonezkoen "makrokartzelen" (espetxe handiak) barruan dauden emakumeentzako kartzela txikiak
- Soilik emakumezkoenak diren espetxeak

Estatu mailan emakumeen 75 modulu inguru aurkitzen diren bitartean, emakumeei espresuki zuzenduak diren lau presondegi daude. Horrek kartzelak populazio maskulinoari begira diseinatuak izatea eta baliabideak beraien beharretara zuzenduak egotea eragiten du. Beste modu batean esanda, politika kriminala genero perspektibatik eratua ez izateak, gizon presoen eginbeharrak emakumezko presoen aldean pribilegio gehiago izatea dakar, arkitektura kartzelario desegoki eta errekurtso falta eraginez (Antony, 2007). Beste era batean esanda, espetxe sistema gizonentzat diseinatua eta pentsatua egoteak, presondegien egunerokotasuna emakumeentzat gizonentzat baino gogorragoa izatea eragiten du (De Miguel, 2016). Hau da, espetxeak "modelo maskulinoan" oinarritzen dira eta horrek emakumeen zigorrari gogortasuna gehitzen dio, kartzelak ez baitira emakumeen arazo zein beharretara moldatzen (amatasuna, heziketa, seme-alabak…).

Arestian aipatutakoari delinkuentzia femeninoak izan duen gorakada gehituz gero, nesken kartzeletan pilaketak ematea eta beraientzat pentsatuak diren lekuen murrizketa izatea suposatzen du. Gainera, aplikatzen diren kartzela politikak diskriminatzaileak eta sexistak dira, bertan erabiltzen diren tratamenduak ideia estereotipatuetan oinarritzen baitira

(Almeda, 2003). Espetxeen funtzioetako bat bertan izandako populazioaren gizarteratzea bermatzea bada ere, emakumeen kasuan eskainitako formazio profesionalaren (kozinatu, josi, lisatu…) bidez «benetako emakume» bihurtzea bilatzen da. Etxekotasunera eta genero roletara zuzentzen diren programa sexistak aurkitu eta emakumeei ematen zaien formazioa espazio pribatura zein gizarteak beraien generoari ezartzen dizkion roletara mugatzen da. Sozializazio modelo honek femenino eta maternalaren arteko baliokidetasuna marrazteaz gain, emakumeak maternalizatu eta infantilizatzen ditu (Antony, 2007).

### 2.3.1. Emakume homizidak

Lan honetan landuko den kasu zehatza kontuan izanik, emakume hiltzaileen inguruko informazioa nabarmentzea garrantzitsua da. Nahiz eta, erailketa delituen ondorioz preso dauden emakumeek portzentaje txikia suposatu, horiek ezagutzea ezinbestekoa da. Beraz, fenomenoaren zergatia hobeto ulertzeko asmoz, homizidioen kasuetan zentratzen den Elena Azaolaren (2001) “*El delito de ser mujer*” liburua aztertu da. Horretan, hilketaren delituak emakume eta gizonak generoaren arabera bizitza sozialera era desberdinean barneratuak izan direla agerian utzi eta erailketa “genero delitu” bezala definitzen du.

Azaolaren (2001) lanean irakurri daitekenez, gizonezko homiziden kasuak alkoholarekin erlazionatuak daude eta biktimak gehienetan nukleo familiarraren kanpokoak izaten dira; aldiz, emakume hiltzaileak tentsiozko egoera isilarazien metaketarekin erlazionatu eta biktima gehienak familia esparrukoak izaten dira. Halaber, familia esparruan izandako hilketetan, gizonezkoen biktima nagusia emakumea —emaztea, maitalea, bikotea edota ohelaguna— den bitartean, emakumezkoena beraren zaintzapean dauden umeak —seme-alabak, seme-alabaordeak— dira.

Liburuan gizonezkoek homizidioa burutzearen arrazoia konpetentziarekin eta etsaitasunarekin erlazionatzen dela dio. Horrek gizonezkoa espazio publikoaren parte dela azaltzeaz gain, txikitatik sozializatu izan den modua eta jasotako hezkuntza azalarazten du.

Bestalde, homizida femenino gehienen biktimak familiako kideak izateak, emakumeak gizartean hartzen duen tokia erakusten du, hau da, esparru domestikora eta pribatura mugatzen baita. Gainera, emakumezko filizida askok modu batean edo bestean tratu txarrak bizi izan dituzte, hots, haurtzaro zein gaztaro latza pairatu dute: abandonatuak, bortxatuak, miserian biziak, hezkuntza jaso gabeak... Beraz, haurren aurkako biolentzia horrek ikasitako izaera duela esan daiteke.

Gainera, Marcela Lagardek (1993; hemen aipatua: Azaola, 2001) filizidioak amatasunaren muturreko forma ezagutzera ematen duela dio. Hala, ama-erlazio guztietan presente dauden agresibitate eta suntsipen ahalmenak erakusten ditu. Amatasunaren ideologia nagusiak (naturalki onak, kaltegabeak…) ez du agresibitatea onartzen; ezarritako muga ikusezin horiek gainditzen dituzten amak gizartearentzat disfuntzioa, gaixotasuna, anomalia edota zorotasuna dutela argudiatzen du egileak.

Bukatzeko esan beharra dago, emakumeak erailketa burutzean bere izaera sozialaren eta izaera femeninoaren suntsipena burutzen duela. Sozietatearentzat umea hiltzen duen emakumezkoa "ama txarra" da, amatasunarekin estuki erlazionatzen den "ama maitasuna" eta "ama instintua" ez daukala ulertzen baita.

### 2.4. Estilo liburuak

Bloke honetan, kazetariek jarrera etikoa burutzeko ezarritako kode deontologikoak bilduko dira. Horretarako, hautatutako egunkarien —*El País*, *El Mundo*, *La Vanguardia* eta *ABC*— estilo liburuak irakurri eta aztergai dugun gertaerarekin erlazioa duten printzipio etikoak sailkatu dira.

- *El País:*

*"Libro de Estilo El País"* (2008) liburua 1977. urtean editatu zen lehen aldiz, orain hamaseigarren edizio honetan zenbait aldaketa aurki daitezke. Bertatik, ikerketarako baliagarri izango diren lau artikulu jorratuko dira:

- Informatu: Testuaren idazlea kontatzen ari denetik kanpo egon behar da. Ez du bere iritzi ezta balorazio pertsonalik emango.
- Sarrera: Corpus informatiboaren parterik garrantzitsuena jasoko du.
- Titulua: Arau orokor bezala, tituluak ez ditu 13 hitz baino gehiago izango. Bertan, notiziaren edota artikuluaren elementu garrantzitsuena azalduko da. Tituluaren edukia argia eta egiazkoa izango da, hau da, ez dira "dirudienez", "posible" eta antzeko adierazpenak erabiliko.
- Errugabetasun printzipioa: Errugabetasunaren erabilera prozedura judizialak ireki diren momentura mugatzen du. Hala, diligentzia judizialak ireki ez badira, ustezko errugabea da.

- *El Mundo:*

"*Libro de Estilo El Mundo"* (1996) lau partetan bereizia dago: estilo arau orokorrak (1), edizio arauak (2), kazetariaren praktika eta etika arauak (3), azkenik, lexikoa eta eranskinak (4). Hala, kazetariak errespetatu beharreko idazketa zein kode etikoak lantzen dituzten lehenengo eta hirugarren atalak aztertu dira. Ikerketarekin harremana duten lau artikulu landu dira:

- Idazketa printzipioak: Artikulu informatiboek errespetatu beharreko bost printzipio finkatzen ditu: doitasuna, iturrien atribuzioa, oreka (auziaren bi aldeak ezagutzea), objektibotasuna, laburtasuna.
- Adjektibo ugaritasuna: Albisteetan deskriptiboak ez diren adjektiboen erabilera murriztuko da. Kalifikatzaileek gertaeren edota pertsonen deskripziorako erabiliko dira, eta ez balio-iritziak jakinarazten laguntzeko.

- Intimitaterako eskubidea: Pertsonaren intimitatea errespetatu behar da, ez dira datu pertsonalak idatziko.
- Arrazismo edota etnia, gizarte zein erlijio gorentasun adierazpenak: Etnia, erlijio, minoria edota talde marjinal batzuen inguruko mespretxuzko adierazpenak debekatuak daude. Kontuan izango dira itxuraz arrazistak ez badira ere, testuinguruaren arabera izan daitezkeen adierazpenak; adibidez, atxilotuen jatorria aipatzea honek gertaeretan inolako garrantzirik ez duenean.

- *La Vanguardia:*

"*Libro de redacción La Vanguardia*" (2004) hiru ataletan egituratzen da: lehenik estilo kazetaritzako eta deontologikoaren funtsezko arauak; bigarren gramatika eta puntuaziori lotutako printzipioak; azkenik, toponimo eta jentilizioak. Lanerako, *La Vanguardia*ren oinarrizko arauez hitz egiten duen lehenengo atala interesatzen zaigu. Ikergaia kontuan hartuz, lau printzipio erabili dira:

- Adjektiboak: Adjektiboen erabilera zaintzea garrantzitsua da, elementu subjektiboak dira eta informazioetan objektibotasuna bilatzen da (1.8. printzipioa).
- Errugabetasun presuntzioa: Tribunalaren zigor irmoz kondenatuak izan ez diren pertsona guztien errugabetasuna mantenduko da. Atxilotuei "ustezko errudun" edota "susmagarri" bezalako formulak aplikatu behar zaizkie. Kazetariak informazioa idaztean printzipio hori betetzen duela bermatzea garrantzitsua da, izan ere, bere idatziak errugabetasuna edota errua frogatzear dagoen pertsonaren lintxamendu morala sortu dezakete (6.1.1. printzipioa).
- Objetibotasuna: Albiste eta informazioen tratamenduan objektibotasuna funtsezko ezaugarria da. Interpretazioa eta opinioa bereiziko dira, hots, kazetariak bere ideia eta lehentasun pertsonalak alde batera utziko ditu (6.1.4. printzipioa).
- Argazki oin salatzailerik ez: Argazki oinetan idatzitakoak ez du irudian ageri den pertsona akusatuko (6.2.5. printzipioa).

- *ABC:*

*"Libro de Estilo ABC"* (2003) lau bloke handitan banatzen da: ortografia, gramatika, ABC idaztera eta lexikoa. Idazkera eta estilo arauak jorratzen diren zatian zentratu eta gure kasurako ondorengo puntuak hautatu dira:

- Iritzia eta informazioa bereiztea: Kazetariak testu informatiboetan komentarioak —ideia, pentsamendu, sinesmen edota iritziak— alde batera utzi eta gertaerak (informazioa) adieraziko ditu. Narrazioan subjektibotasuna ekidin behar da.
- Pertsonen izenak: Pertsonak ez dira beraien arraza, kolore, erlijio edota jatorri etnikoagatik identifikatuak izango, datu horiek soilik emango dira albistea ulertzeko beharrezkoak diren kasuetan.

- Intimitatearen errespetua: Pertsonen intimitate indibidualerako eta familiarrerako eskubidea errespetatuko da. Beraien bizitza pribatuan sartzea saihestuko da.
- Titulua eta sarrera: Tituluak irakurleari sortzen zaion lehen jakinmina asetu behar du. Tutuluak interpretatibo eta informatiboak izango dira. Sarrerak informazio garrantzitsu eta nabarmenena jasoko du.
- Sub júdice gaiak: Kazetariak kontrakoa frogatu artean pertsona guztiak errugabeak direnaren printzipioa jarraituko du. Hortaz, tribunaletan epaia eman aurretik ez da inor susmagarri edota delituaren autore bezala identifikatuko. Errugabetasun presuntzioa errespetatu behar da.

## 3. METODOLOGIA

Aurrean ageri den GRALaren metodologiari dagokionez, ikerketa guztia Quezadaren kasu konkretuan zentratu da. Prentsak emakume atzerritar delinkuentearen irudiaren eraikuntza sozialean duten papera aztertu nahi denez, ikergai dugun kasu konkretuaren aurrean prentsak nola jokatu duen azalduko da. Horiek horrela, gertaera zehatz batean zentratzea eraikuntza sozialaren fenomenoa lantzeko modurik egokiena bezala ikusi da.

Ikerketa honi forma emateko komenigarriena edukien analisi-teknika erabiltzea izan da. Izan ere, Patxi Juaristik (2005) azaltzen duen bezala, edukien-analisia erabiltzen duten azterketek "agerian dagoena eta ezkutuan dagoena aztertzen dute eta testuaren berezitasunak deskribatzeaz gain, inferentziak ere egiten dituzte". Beraz, finkatutako helburu eta formulatutako hipotesiak kontuan izanik, Espainiako egunkariek Ana Julia Quezadaren kasuaren aurrean izandako jarrera aztertu eta kasuari eman zaion tratamenduari buruzko informazioa eskaintzen digun diagnostikoa egingo da. Lagina zehazterakoan, kasuaren inguruan esandakoa analizatzeko informazio orokorreko paperezko lau egunkari aukeratu dira: *El País, El Mundo, La Vanguardia* eta *ABC.*

Hedabide mota desberdinen multzotik prentsa hautatzean irakurleen eredu mentalak sortzerakoan eta ordena sozialetik eratorriak diren ideologiak erreproduzitzerakoan egunkariek duten eragin handia izan da kontuan (Sáez, 2017). Prentsak gizarteko kideen eguneroko bizitzan zein ideologian influentzia eragiteko boterea handia baitauka.

Paperezko formatua lantzea eta edizio digitalak alde batera uztea pentsatu da, plataforma digitalean argitaratuak izan diren mezuetan aldaketak eman baitaitezke. Era berean, egunkariak zeintzuk izango diren aukeratzerakoan hedapenaren datuak eta bakoitza talde mediatiko desberdinen parte izatearen faktoreak kontuan izan dira. Diskurtso periodistikoen aniztasuna bermatu ahal izateko, egunkariak espainiar talde mediatiko ezberdinetakoak izatea bilatu da. Gauzak horrela, analizatuko diren talde- mediatikoen ildo editorialaren zein ideologikoan sakonduz gero, ondorengo eskema aurkituko genuke (Rodríguez-Polo eta Santillán, 2012):

- Prisa taldeko *El País* tradizio liberaleko egunkaria da. Bere interesak PSOE alderdiaren hurbilekoak dira.
- Unidad Editorial taldeko *El Mundo*k izaera liberala du. Bere lerro editoriala PP alderdi politikora gerturatzen da.
- Godó taldeko *La Vanguardia* egunkariaren ildo ideologikoak eskuin politikara jotzen du.
- Vocento taldeko *ABC* tradizio monarkikoa defendatzen duen egunkari kontserbadorea da.

Hortaz, analizatutako egunkari ia guztiak kontserbadoreak direla esan beharra dago. Izan ere, *El Mundo*, *La Vanguardia* eta *ABC* medio kontserbadoreak kontsideratzen diren bitartean, *El País* progresista da.

Azaldutakoa kontuan hartuz, OJDren datuen arabera, aukeratutako prentsa Espainian aleko tirada eta hedapenaren batezbesteko handiena duten ordaindutako informazio

orokorreko lehen lau egunkariak dira[4]. Datu estatistiko horien bidez, saldutako aleen inguruko informazioa jasotzen dugu eta jakina denez audientzien datuak hedapenarenak baino handiagoak izaten dira, hau da, egunkari berbera pertsona batek baino gehiagok irakurtzen baitute.

**1. Taula: Informazio orokorreko prentsaren eguneroko tirada eta hedapena 2017an Espainian (milakotan)**

| Egunkariak | Aleko tirada | Hedapena |
|---|---|---|
| El País | 226.077 | 175.041 |
| El Mundo | 141.733 | 97.162 |
| La Vanguardia | 132.766 | 105.813 |
| ABC | 115.291 | 79.892 |

Iturria: Lankueta propioa. Datuak: OJD, 2017 https://www.ojd.es/medios-controlados/

Ikerketaren unibertsoa, esandako egunkariek Ana Julia Quezadaren kasuari buruz emandako informazioa da. Beste era batera esanda, Quezadaren atxiloketaren biharamunetik (2018ko martxoaren 12a) epaiketaren biharamunera (2018ko martxoaren 16a) igarotako egunetan izandako informazio guztia da. Beraz, lau egunkari horietan bost eguneko tartean kasuari eman zaion jarraipen eta trataera informatiboa aztertzea da xede.

### 3.1. Metodologiaren aukeraketa

Ikerketa burutzeko metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili dira. Arestian aipatutako egunkarien albisteetan eduki-analisi teknika aplikatu eta gertakariaz hitz egiten den testu bakoitza analizatuko da. Horrela, espainiar egunkariek emakume atzerritar delinkuentearen eraikuntzan jokatzen duten papera modu interpretatiboan aztertuko da.

Azterketa kuantitatiboari esker, informazioari eskainitako espazioaren neurketa eta jazoerak izandako inpaktua ikusiko da. Hori kontuan hartuz, analisi unitateak prentsaren aleetan ageri diren genero periodistiko guztiak izango dira, genero informatiboak eta iritzi artikuluak hain zuzen.

Azterketa kualitatiboaren bidez, egunkari bakoitzak igorritako mezuak aztertuko dira. Honekin, gertakariari emandako trataera ezagutzeko diskurtso periodistikoa aztertu eta idaztean izandako intentzioaren inguruko ondorioak aterako dira. Horretaz gain, hedabide bakoitzak bere kode deontologikoak kontuan izanik lan egin duten ikusiko da.

### 3.2. Analisi kuantitatiboa

Alde batetik, parte kuantitatiboan egiteko eduki-analisiaren teknika erabili da. Horri esker, finkatutako denbora tartean jazoerari eman zaion jarraipen eta kobertura

[4] https://www.ojd.es/medios-controlados/

informatiboa zein izan den ezagutuko da. Horrez gain, informazioari emandako hedaduraren neurketa (zutabeetan) egingo da.

Ikerketaren objektibotasuna bermatzeko, lan guztian zehar ebaluaketa irizpide berdina jarraitu da. Erregistro fitxa komun bat prestatu da eta horren arabera egunkarietan publikatutako edukia aztertuz egun bakoitzeko taula bat bete da. Sailkapena egiteko ondorengo puntuak finkatu dira:

- Egunkaria eta eguna:

Taula betetzean miatu den egunkaria eta eguna identifikatuko dira.

- Informazio mota eta espazioa:

Kasuari buruzko testua egunkariaren barnealdean egonez gero, genero informatiboa edota iritzikoa den bereiziko da. Era berean, fitxan informazioa zuzena —aztergai dugun kasua da informazioaren gai zentrala— edota zeharkakoa —beste zerbaiten berri ematean (kartzela zigorra edo biolentzia familiarra adibidez) jazoera edota horren subjektuak (Cruz, Quezada, umearen ama…) izendatzea— den klasifikatuko da. Gehitzeko, informazio zuzenari zein zeharkakoari eskaini zaion espazioa konkretatzeko zutabe kopurua zenbatuko da.

- Azala eta argazkia:

Aztergai dugun gaian zentratzen den informazioa (zuzena) zenbat egunetan eta zein egunetan izan den egunkariaren azala zehaztuko da. Lehen orrialdea izandako egunetan argazkia gehitu zaion identifikatzea. Egunero jasoera ugari ematen badira ere, gutxi batzuk ager daitezke portadan. Hortaz, bertan publikatuak diren gertaerak egunkariarentzat inportantzia handikoak direla esan nahi du.

- Nazionalitatea:

Puntu honetan kasuan fokuratzen duten informazio generoetan Quezadaren jatorria zehazten duten ikusiko da. Atal hau finkatzea atzerritarra izateak informazioan zer-nolako garrantzia jasotzen duen jakiteko ezinbestekoa da.

- Perfil soziala:

Bloke honetan kasuari eskainitako testu informatiboan Quezadaren perfil sozialaren inguruko informazioa ematen den aztertuko da. Jazoera ulertzeko beharrezkoak ez diren datu pertsonalak eskaintzen dituzten ikusiko da. Hau da, diskurtsoetan emakumearen bizitza pribatuaz datuak ematen zaizkigu: familia, aurretik izandako beste bikoteak, egoera ekonomikoa, lana…

- *"Ustezko"* hitza tituluan:

Quezadari erreferentzia egiten dioten titularretan *"ustezko*" hitza gehitzen den ikusiko da. Hori errugabetasun presuntzioa errespetatu den jakiteko datu baliagarria izango baita.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Egunkaria** | | | | | | |
| **Data** | | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | | | | | | |
| **Zutabeak** | | | | | | |
| **Azala** | | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | | | | | | |
| **Nazionalitatea** | | | | | | |
| **Perfil soziala** | | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | | | |

Iturria: Lanketa propioa

### 3.3. Analisi kualitatiboa

Alderdi kualitatiboa eratzerakoan kontuan izan dira aurretiaz azaldutako ikerle eta adituen teoriak. Lanean zehar esan den bezala, prentsan eratzen diren diskurtsoek identitateak sortzeko eta gizarteko kideetan influentzia zuzena gauzatzeko boterea daukate. Hori kontuan izanik, prentsako ale desberdinetan ikergaiaz idatzitako diskurtso informatiboen analisia egin eta emakume atzerritar delinkuentearen eraikuntzan izan duten papera ezagutu nahi da.

Gauzak horrela, azterketa honetan Almeriako kasuan fokoa jartzen duten diskurtso informatiboak aztertuko dira. Hala, atal honen helburua diskurtso informatiboaren analisia egitea denez, gertaeraz zuzenean mintzo diren genero informatiboak soilik landuko dira. Beraz, gaiaren inguruan zeharka hitz egiten duten unitate informatiboak eta iritzi generoa zuzenean zein zeharka jorratzen duten artikuluak alde batera uztea pentsatu da.

Parte honetan, azterketa kuantitatiboan finkatu eta sailkatuta ditugun unitateen interpretazioa egingo da. Egileak igorritako mezuak miatu eta horiekin irakurleei transmititzen zaizkien baloreak ezagutzeko saiaketa egingo da. Gainera, diskurtsoek fotografiak izatekotan horietan ageri den edukia identifikatu eta zein motakoak diren azalduko da: Quezadaren argazkia, familiarena, biktimarena, egindako aktoren batekoa…

Azkenik, informazioa igortzean kode deontologikoetan ezarritako printzipio desberdinak errespetatzen diren ikusiko da. Hori jakin ahal izateko, marko teorikoan atxikitako estilo

liburuen printzipio etikoak oinarri izango dira. Ondoren, zein neurritan bete dituzten analizatuko ahal izango da.

# 4. EMAITZAK

## 4.1. Emaitza kuantitatiboak

Puntu honetan, GRALan lantzen den gaiarekin erlazioa duten informazioak bilatzeko asmoarekin, hautatutako lau egunkariak banaka analizatu dira. Aztertutako egunak kontuan izanik, martxoaren 12tik 16ra bitarteko tartea hain zuzen, aukeratutako egunkarien artean ikergaiarekin erlazioa duten 148 unitate aztertuko dira. Orokorrean kasuak egunkarietan presentzia nabarmena izan duela esan daiteke, gertakariaz zuzenean edota zeharka hitz egiten duten pieza ugari publikatu baitira. Halaber, hurrengo lerroetan baieztapen horren arrazoiak azalduko dira.

- Informazio mota eta espazioa:

1. grafiko honetan hautatutako egunkari bakoitzaren barnean bost eguneko tartean kasuari eman dioten jarraipena ikusi daiteke. Irudikapen honetan, iritzi zein informazio generoak kontuan hartuz, informazioa zuzenean —aztergai dugun kasua da diskurtsoaren gai nagusi— edota zeharka —jazoera edota horren parte diren aktoreak aipatzen badira ere, ez dira informazioren gai zentrala— eman den bereizi eta publikatutako artikuluen kopurua guztira azaltzen da. Hori horrela, orotara 148 unitate arkitzen dira: 91artikulo zuzen eta 57 zeharka.

Grafikoan ikusi ahal denez, egunkari guztien kasuan jazoeraz zuzenean mintzo diren artikulu gehiago aurki daitezke. Horrekin bat, informazioaren lanketa era zuzenean zein zeharka egitean *ABC* izan da jarraipen handiena egin duena. Izan ere, gainontzeko egunkariei alde nabarmena ateratzen die; guztira 55 artikulu argitaratu dituzte, zuzenean 31 eta zeharka 24. Ildo beretik, jarraipen handiena egin duen bigarren egunkaria *El Mundo* izan da; orotara 39 unitate publikatu dira, 21 artikulu zuzenean eta 18 zeharka.

Azkenik, *El País* eta *La Vanguardia* jazoera gutxien jorratu duten egunkariak izan dira. Datuak erreparatuz, aipatutako egunkarietako bakoitzak 27 testu landu dituela ikusi daiteke. Hortaz, beraien artean ez da alde handirik bereizten; *El País*ek zuzenean 21 eta zeharka 7 testu argitaratu dituen bitartean, *La Vanguardia*k 19 unitate zuzen eta 8 zeharka publikatu ditu.




Iturria: Lanketa propioa

Ondorengo interpretazioan, 2. grafikoan, zuzenean zein zeharka gaia jorratu duten testuei eman zaien espazioa analizatu da. Hautatutako egunkarietan informazio eta iritzi generoek guztira izandako zutabeak zenbatu dira. Gertakariaz zuzenean informatzerakoan eman diren unitateen kopurua nahiko antzekoa izan dela esan daiteke. Hori horrela, *ABC* izan da kasuari espazio gehien eskaini dion egunkaria (79 zutabe). *La Vanguardia*k, aldiz, gertakariari espazio gutxien eskaintzen dion egunkaria da (49 zutabe).

Baina, jazoeraren inguruan zeharka informatzeko dedikatu diren zutabeen kopuruaren datuetara jo ezkero, desberdintasun handiagoak ikusiko dira. Hala, zeharka informatzen duten unitateetan ikertzen ari garen kasuari nolabaiteko erreferentzia egiten bazaio ere (jazoera edota horren subjektuen izendapena), diskurtsoaren xedea ez da gertakariaren nondik-norakoez informatzea, beste gairen bat jorratzea baizik.

Gauzak horrela, *El Mundo* da gainontzekoengandik aldentzen dena. Izan ere, *ABC* jarraitzen badio ere, biek zeharkako informazioari emandako espazioan alde nabaria ikusi daiteke*: El Mundok*, guztira, 72 zutabe hartzen ditu, eta *ABC*k 51.

Aipagarria da, *La Vanguardia* eta *El País* direla zeharkako informazioari espazio gutxien eman diotenak. Desberdintasuna begi bistakoa da, hau da, aipatutako bi egunkariek 24 zutabe eskaini dizkioten bitartean, *ABC*k beraien bikoitza eta *El Mundo*k ia hirukoitza eman diote.




Iturria: Lanketa propioa

Eratutako 3. grafikoan zuzenean ikergai dugun jazoera fokuratzen duten artikuluak generoaren arabera sailkatuak daude. Beraz, Almeriako pasartea gai nagusi bezala duten 91 unitate aurkitu dira, 57 informazio genero eta 34 iritzi genero.

Lehen begiradan, informazio generoen barruan sailkatzen diren unitateen kopuruan desberdintasun nabarmenak ikusi daitezke. Hala, analizatutako bost egunetako epean, *ABC*k testu informatibo gehien (23) argitaratu dituen bitartean, *La Vanguardia*k gutxien (8) publikatu dituen egunkaria izan da. Bi horien tartean, *El Mundo* eta *El País* aurkitzen dira, bakoitzak 13 informazio artikulu argitaratu baititu.

Iritzi generoari dagokionez, publikatutako artikulu kopuruan ematen den desberdintasuna nahiko orekatua dela esan daiteke. Egunkarien iritzi sailean izandako aipamenak kontuan izanik, ondorengo zerrenda eratu daiteke: 11 iritzi artikulu *La Vanguardia*k, 8 *El Mundo* eta *ABC*k, eta 7 *El País*ek. Aipagarria da, *La Vanguardia* diskurtso informatibo gutxien (8) eman dituen medioa izan bada ere, iritzien saila gehien (11) jorratu duena izan dela.




Iturria: Lanketa propioa

Ildo beretik, behean dugun 4. grafikoan ikergaiaz zeharka hitz egiten duten unitateak aztertu eta ondorengo emaitzak aurkitzen dira. Orotara, gaiaz zeharka mintzo diren 57 artikulu zenbatu dira, 22 informazio sailean eta 35 iritzi sailean. Gauzak horrela, aukeratutako egunkariak unitate informatiboetan nahiko parekatuta badaude ere, iritzi sailean desberdintasun handiak aurki daitezke.

Lehenik eta behin, zeharka mintzo diren unitate gehienak espainiar politikan pil-pilean dagoen presondegi prebentibo permanentearen[5] inguruko debatearen inguruan hitz egiten dutela argitu behar da. Horietan, legea onartzeko pisuzko arrazoi bezala Gabrielen kasua eta aurretik gertatutako beste zenbait jazoera (Diana Quer, Mariluz Cortés…) aipatzen dituzte. Bestalde, tematika horretatik aldenduz, ikergaia zeharka aipatu duten bost unitate informatibo aurkitu dira: biolentzia familiarra (Álvarez, El País, 2018/03/16; ABC, 2018/03/16), seme-alaba baten heriotza nola superatu (Peraita, ABC, 2018/03/14), gurasoek beraien seme-alabengan ezartzen duten kontrola (Gonzalez de Vega, El Mundo, 2018/03/16) eta pertsona desagertuen (La Vanguardia, 2018/03/12) gaiak jorratzen dituzte.

Gauzak horrela, gaia zeharka jorratu eta informazio generoaren barruan sailkatzen diren artikulu gehien *El Mundo*k (8) publikatu ditu; ondoren *El País* (5) eta *La Vanguardia*k (5), eta azkenik *ABC*k (4).

Hautatutako egunkarien iritzi sailetan argitaratu diren unitateen arteko aldeak handiak dira. *ABC*n eman da iritzi artikuluen maximoa, bere orrialdeetan 20 unitate zenbatu

[5] Presondegi prebentibo permanentea espainiar Kode Penalean ageri den espetxeratze zigor handiena da. Pena honetara zigortua dagoen pertsonak ez du kartzelan igaroko duen denbora zehaztua eta KParen 92.artikuloan aurreikusitako baldintzen arabera jasotako kondena berrikusi egingo zaio. Zigor hau erailketa kasu larrienetan soilik aplikatu daiteke. Aipagarriak dira, besteak-beste, ondorengo delituak: erailketaren biktimak 16 urte baino gutxiagoko edota adin, gaixotasun zein desgaitasun fisiko baten eraginez bereziki zaurgarriak diren pertsonak izatea, hiltzailea organizazio kriminal bateko kide izatea, Familia Errealeko kide baten erailketa, terrorismo hilketak… (Corral, 2018).

baitira. Ondoren, aurreko egunkariak publikatutakoaren erdia, hots, 10 iritzi testu lantzen dituen *El Mundo* dugu. Esparru honetan ere, *El País*ek eta *La Vanguardia*k antzerako joera daukate, lehenak 2 unitate publikatu ditu eta besteak 3.




Iturria: Lanketa propioa

- <u>Azala eta argazkia</u>:

Azalak eskaintzen dituen datuak kontuan izatea garrantzitsua da. Azalean albiste gutxi batzuk publikatu ahal direnez, egunkariek bertan ageri diren edukiak gainontzekoengandik gailentzen dituztela esan nahi du. Horri argazkia gehitzen baldin bazaio, informazioari emandako espazioa eta inportantzia ere handitu egingo dira. Izan ere, fotografiak ikusgarritasuna gehitzeaz gain, irakurlearen arreta errazago erakartzen du.

Azalari dagokionez, martxoaren 15 eta 16ean izan ezik gainontzeko egun guztietan zuzenean kasuari erreferentzia egiten dion informazioa lehen orrialdean izan da. Beste era batean esanda, martxoaren 12, 13 eta 14ean aukeratutako lau egunkarietan gertakizunaren inguruko gora-beherak portadan agertu dira.

**2. taula: Quezadaren kasua egunkariko azalean agertutako egunak**

| **Egunkariak** | **Martxoak 12** | **Martxoak 13** | **Martxoak 14** | **Martxoak 15** | **Martxoak 16** |
|---|---|---|---|---|---|
| El País | X | X | X | | |
| El Mundo | X | X | X | | |
| La Vanguardia | X | X | X | | |
| ABC | X | X | X | | |

Iturria: Lanketa propioa


EL PAÍS
EL PERIÓDICO GLOBAL

El PSOE exige más dinero para pactar la financiación

Pablo Casado, vicesecretario del PP, asegura que la propuesta para las autonomías estará lista "en breve"

Londres implica a Rusia en el caso del espía envenenado

La primera ministra británica considera "muy probable" que el Kremlin esté detrás del ataque contra Skripal y pide explicaciones

Novela de intriga en la plácida Salisbury

La recuperación de la vivienda multiplica las inmobiliarias

La madre del niño Gabriel Cruz pide que "no se extienda la rabia"

La sospechosa del crimen permanece muda en los interrogatorios

El paisaje roto de Ana Julia Quezada

*El País* (2018/03/13).


ALICIA VIKANDER, LA NUEVA LARA CROFT: «LAS CUOTAS FUNCIONAN»

EL MUNDO

PAÍS VASCO

La asesina urgió al padre de Gabriel a ofrecer un rescate

Plantó a los progenitores que ofertaran una recompensa en televisión de 10.000 euros peso a que estranguló al niño el primer día

La maniobra de Ana Julia Quezada despertó las sospechas de los padres, que le siguieron la corriente por recomendación de la Guardia Civil

El rastro de muerte de Ana Julia en España

Ultimátum de May a Putin para que aclare el ataque al espía ruso

Rajoy frenó la guerra con Atlantia y facilitó el acuerdo con ACS por Abertis

Francisco celebra los cinco años de papado con un deshielo con China

La izquierda y los nacionalistas se ratifican y derogarán la prisión permanente revisable

Los Mossos seguían a Fernández Díaz para interceptar su teléfono

*El Mundo* (2018/03/13).


LA VANGUARDIA

La ballena que vino a morir a la playa de Montgat

Givenchy, adiós a un aristócrata de la alta costura

Uber vuelve a Barcelona con el taxi en pie de guerra

La empresa arranca hoy con 120 coches de alquiler con conductor profesional (VTC)

El sector denuncia que las 920 licencias concedidas superan el límite legal

Colau busca apoyo para el tranvía de Glòries a Verdaguer

El niño Gabriel murió estrangulado la misma tarde de su desaparición

La policía revisará la muerte de una hija de la presunta asesina, ocurrida hace 22 años

El PDECat avisa de que no cederá poder a Puigdemont si hay elecciones

La oposición agita las pensiones para presionar a Rajoy

*La Vanguardia* (2018/03/13).


12 MARZO 2018 Lunes

ABC

«Devolvednos a nuestro Gabrielillo»

ARRESTADA LA PAREJA DEL PADRE DEL NIÑO DE NÍJAR

EL MAL ESTABA EN CASA

La Guardia Civil detiene a Ana Julia Quezada cuando trasladaba el cadáver del pequeño Gabriel en el maletero de su coche tras ocultar el cuerpo durante días en un pozo

*ABC* (2018/03/12).

Era berean, *El Mundo* eta *ABC*n, martxoaren 12tik 14ra bitarteko hiru egunetan, gertaera azaleko argazkia izan da. Baina, *El País* eta *La Vanguardia*ko lehen orrialdeei argazkia bi egunetan gehitu zaie, martxoaren 12an eta 13an.

Hortaz, martxoaren 14ean aukeratutako egunkariek beraien azalean publikatutako edukian desberdintasuna ikusi dezakegu. Horrela, *El Mundo*k eta *ABC*k Gabriel Cruzen hiletan bere gurasoei egindako argazkia publikatzen duten bitartean, *El País*ek eta *ABC*k

Donald Trumpen —Estatuko idazkariarekin izandako liskarraren inguruko albistea irudikatzeko— fotografia argitaratzen dute.

| 3. taula: Quezadaren kasua egunkariko argazkidun azala izandako egunak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Egunkariak** | **Martxoak 12** | **Martxoak 13** | **Martxoak 14** | **Martxoak 15** | **Martxoak 16** |
| El País | X | X | | | |
| El Mundo | X | X | X | | |
| La Vanguardia | X | X | | | |
| ABC | X | X | X | | |
| | | | | | Iturria: Lanketa propioa |


EL PAÍS
EL PERIÓDICO GLOBAL
www.elpais.com
Colau redobla los subsidios y los contratos a grupos y personas afines
Estrasburgo protege la quema de retratos del Rey como libertad de expresión
Hallado muerto en Londres otro antiguo rival de Putin
Trump fulmina con un tuit al secretario de Estado, el último reducto de cordura
Mike Pompeo, jefe de la CIA y perteneciente al sector más radical, sustituye en el cargo al pragmático Rex Tillerson
La jefa de una cárcel secreta, primera mujer al frente de la CIA
Mercadona se convierte en la empresa que más vende en España
La detenida por el asesinato de Gabriel confiesa el crimen
Ana Julia Quezada asegura que el niño la agredió y que ella actuó en defensa propia
idealista
vamos a llevarnos bien

*El País* (2018/03/14).


PAPEL
'COMPRENDO AL QUE ME VIOLÓ E IBA A MATARME'
TRASPLANTES SIN TRANSFUSIONES
EL MUNDO
PAÍS VASCO
La asesina culpa a Gabriel para burlar la prisión permanente
Ana Julia confiesa que mató al niño al golpearlo en la cabeza con un hacha pero dice que él la agredió primero
Trump despide por Twitter a su secretario de Estado y recurre al jefe de la CIA
PSOE y Podemos no rectifican pese al desgaste
Estrasburgo tumba la pena de cárcel por quemar fotos del Rey
La Generalitat deja sin sueldo a un 'mosso' por usar el español en pleno 155
Cifuentes baja el IRPF y Sucesiones frente al resto de las autonomías
¿Dónde vas a poner el huevo en Semana Santa?

*El Mundo* (2018/03/14).


LA VANGUARDIA
La falta de apoyos entierra el proyecto de tranvía de Colau
Los taxistas vigilarán que Uber cumpla con la ley
El arquitecto Richard Meier, acusado de acoso sexual
Madrid desoye las críticas y vuelve a bajar impuestos
La comunidad tendrá los tipos mínimo y máximo de IRPF más bajos del sistema
Cifuentes también reduce sucesiones entre hermanos y tíos y sobrinos
ERC apremia a Puigdemont para que designe nuevo candidato
La detenida confiesa que golpeó y asfixió a Gabriel
Ante su muro.
Trump amplía su purga con Tillerson como nueva víctima
Century 21
POR TU CASA
COMPRAR • VENDER • ALQUILAR
La policía investiga la muerte de un exiliado ruso en Londres

*La Vanguardia* (2018/03/14).


14 MARZO 2018 Miércoles
ABC
LA ASESINA ALEGA DEFENSA PROPIA PARA EVITAR LA PRISIÓN PERMANENTE
Confiesa ante la Guardia Civil que asfixió al niño, pero dice que Gabriel le atacó con un hacha
«Mi niño ha ganado, la bruja ya no existe»

*ABC* (2018/03/14).

- Nazionalitatea:

Gabrielen heriotza albistearen gai zentrala den informazio testuetan Quezadaren nazionalitateaz mintzo diren aztertu da. Erailtzailearen atzerritar kondizioak informazioan zer-nolako garrantzia jasotzen duen jakiteko, puntu hau analizatzea ezinbestekoa da. Horregatik, egun bakoitzeko diskurtso periodistikoan emakumearen jatorria gutxienez behin aipatu den kontatu eta unitatezko balioa (1etik 5era) jarri zaio. Hau da, 1 zenbakia izango du bere nazionalitatea egun bakarrean aipatzen bada; 2 zenbakia bi egunetan izan bada eta horrela 5 zenbakiraino (bost egun aztertu baitira).

Behean aztertu daitekeen 5. grafikoko emaitzak kontuan izanik, aukeratutako egunkari guztietan, gutxienez egun batetan, emakumearen jatorriaz mintzo direla ikusi dezakegu. Gertatutakoa ezagutzeko ez da herritartasunaren inguruko berririk eman behar, ez baitu informazioan ekarpenik suposatzen.

*ABC* izan da aztertutako egun guztietan nazionalitatearen berri eman duen egunkari bakarra. Ostean, *El Mundo* aurkitzen da, martxoaren 15an izan ezik, gainontzeko lau egunetan emakumea atzerritarra dela azaltzen zaigu. Aldiz, Quezadaren Dominikar izatea gutxien adierazi duten bi medioak: *El País* (3) eta *La Vanguardia*(2) izan dira.

Beraz, *La Vanguardia* jatorriaren datuari inportantzia gutxien ematen dion medioa dela esan daiteke. Izan ere, bi egunetan —atxiloketaren biharamunean (martxoaren 12a) eta ondorengo egunean (martxoaren 13a)— ematen zaigu kanpotarra denaren berri.




Iturria: Lanketa propioa

- Perfil soziala:

Ikergaian zentratzen diren unitate informatiboetan emakumearen perfil sozialaren inguruko informazioa eman den analizatu da. Horrela, gaiaren inguruan eratutako diskurtsoetan emakumearen pribatutasuna errespetatua izan den jakingo da. Grafikoaren eratzeko aurreko atala lantzerakoan erabilitako prozesu berbera erabili da. Hau da, egun

bakoitzeko diskurtso periodistikoan emakumearen perfil sozialeko aspekturen bat gutxienez behin aipatu den kontatu eta balio numerikoa (1etik 5era) jarriko zaio, hots, bere perfil sozialeko aspekturen bat egun bakarrean aipatzen bada 1 zenbakia izango du; bi egunetan izan bada 2 zenbakia, horrela 5 zenbakiraino (aztertutako egunak bost baitira).

Aurrean dugun 6. grafiko honetan hautatutako egunkariak Quezadaren bizitza pribatuaz mintzo direla argi ikusi daiteke. Izan ere, emakumearen bizitza pertsonalaren inguruko datuak argitaratu eta bere pribatasuna errespetatu ez dela esatea posible da. Hala, unitate informatiboetan jazoera ulertzeko beharrezkoak ez diren datu ugari ematen dira: Quezadaren ikasketak, bikotekide ohiak, egoera ekonomikoa…

Kasu honetan ere, *ABC* izan da egun gehienetan Ana Juliaren bizitza pribatuaz hitz egin duen egunkaria. Izan ere, martxoaren 16an ez ezik, gainontzeko lau egunetan atxikitu da emakumearen perfil sozialaren aspekturen bati buruzko informazioa. Beste hiru egunkariek Quezadaren bizitza pertsonala egun kopuru berdinean landu dute; hots, informazio hori *El País, La Vanguardia* eta *El Mundo*k hiru egunetan zehar eman dute.




Iturria: Lanketa propioa

- *"Ustezko"* hitza tituluan:

Azterketa egindako egun tartean ez da espresuki *"ustezko"* hitza erabili duen titularrik publikatu.

Dena dela, azterketaren esparru honetan aipatzea merezi duen zerbait aurkitu da. Izan ere, *El Mundo* eta *ABC* egunkarietan, epaia ezagutu aurretik publikatutako zenbait unitateren tituluetan Quezada "hiltzaile" bezala identifikatu dute. Baina, artikulu horien corpusean Quezada susmagarri erara azaldua da, hots, "atxilotu", "akusatu" edota "susmagarria" bezalako formak erabili dituzte.

Puntu honetan ikusten den arazoa argia da, hots, tituluak irakurlearen arreta deitu eta inpaktu handiena eragiten duen unitatearen atala dela kontuan izanik, titular salatzaile

horiek jendearen aurreiritzia sortu eta indartuko dute. Horiek horrela, Ana Julia “hiltzaile” gisa identifikatzearekin bat, kode deontologikoetan finkatutako errugabetasun presuntzioaren urraketa ematen da.

Ildo beretik, urraketa honen kasurik esanguratsuenak *ABC* zein *El Mundo*k publikatutako azaleko titularretan aurkitzen dira. Horrela, *ABC*k lehen orrialdeko titular salatzaile bakarra (2018/03/14) publikatu duen bitartean, *El Mundo*k hiru (2018/03/12; 2018/03/13; 2018/03/14) egunetan egin du. Hori erakusteko, behean atxikitzen dira azalean agertu eta “hiltzaile” adierazpena erabilita formulatutako titularren bi adibide:



DXT | FÚTBOL ATLÉTICO | CICLISMO MARC SOLER

EL MUNDO

PAÍS VASCO

Sánchez fracasa en su intento de mostrar que el PSOE vuelve a estar unido

LUIS ÁNGEL SANZ

Presos del 11-M tratan de ser expulsados hacia cárceles de sus países

FERNANDO LÁZARO

La Guardia Civil sospecha que la asesina de Gabriel no actuó sola

Doce días después de la desaparición del niño, sorprenden a la novia del padre con el cuerpo en el maletero

Los investigadores creen que el menor murió poco después del secuestro y que la mujer ocultó el cadáver en un pozo

La camiseta y el hecho de que la detenida dijera que había perdido su móvil la señalaron como principal sospechosa

RAMÓN RAMOS

FERNANDO LÁZARO

Florentino Pérez se reparte Abertis con los italianos de Atlantia sin trocearla

POR CARLOS SEGOVIA

HOY, CON EL MUNDO

ACTUALIDAD ECONÓMICA

«Nuestra obsesión fue evitar el rescate para salvar las pensiones»

Entrevista exclusiva con Luis de Guindos

Sexo es Vida

¿Problemas de Erección? ¿Eyaculación Precoz?

› 902 907 687

WWW.BOSTON.ES

BOSTON MEDICAL GROUP

MARIO VARGAS LLOSA

«El 8-M prueba que España ya no es un país subdesarrollado»

POR C. ÁLVAREZ DE TOLEDO

*El Mundo* (2018/03/12).



14 MARZO 2018 *Miércoles*

ABC.es

ABC

LA ASESINA ALEGA DEFENSA PROPIA PARA EVITAR LA PRISIÓN PERMANENTE

Confiesa ante la Guardia Civil que asfixió al niño, pero dice que Gabriel le atacó con un hacha

*«Mi niño ha ganado, la bruja ya no existe»*

Patricia y Ángel dieron ayer en Almería el último adiós a su hijo confortados por miles de vecinos y acompañados por la vicepresidenta, el ministro del Interior y la presidenta de Andalucía

*ABC* (2018/03/14).

## 4.2. Emaitza kualitatiboak

Metodologian azaldutakoarekin bat, atal honen helburua informazioari ematen zaion tratamendua ezagutzea denez, zuzenean gaiaren inguruan hitz egiten duten genero informatiboak aztertuko dira. Horiek horrela, 57 informazio unitateren analisia egitearekin bat, ustezko erailtzailea emakumea eta atzerritarra izateak diskurtso periodistikoetan izandako eragina ezagutzea bilatzen da.

Gauzak honela, diskurtso periodistikoetan zabaldutako mezuak aztertuko dira. Azkenik kode etikoetan ezarritako printzipioak urratuak izan diren analizatuko da.

- <u>Nazionalitatea</u>:

Aukeratutako egunkari guztiek Quezadaren nazionalitatearen berri ematen dute. Baina, aurrean dugun kasua jarraitzeko eta ulertzeko erailtzailearen atzerritar kondizioa ezagutzea ez da beharrezkoa. Horiek horrela, kasu honetan emakumearen herritartasuna aipatzeak delinkuentzia eta immigrazioa lotzen dituen prejuizioak indartzea dakar.

Halabeharrez, albisteek piramide irauliaren egitura jarraitzen dutela kontuan izanik —testuan informazio garrantzia handienetik gutxienera azaltzen da— etorkin kondizioa titulu, azpitituluan edota lehenengo lerroetan aipatzeak datu horri garrantzia handia eman zaiola ulertzen da. Hala, analizatutako kasuetan emakumearen herritartasunari berezko nabarmentasuna eman zaiola esan daiteke, hots, egunkari gehienetan emakumearen jatorriaren eta iraganaren berri albistea hasi bezain pronto ematen baita.

Aipagarria da, emakumea immigrantea izatearen datuari ematen zaion trataeran alde garrantzitsuak aurkitu daitezkeela analizatutako egunkarien diskurtsoen artean. Izan ere, gehienetan Ana Juliaren nazionalitatearen berri lehenengo lerroetan ematen bada ere, kasu batzuetan unitate informatiboaren sarreran edota azpitituluan aurkitu da. Halabeharrez, atal honi forma emateko, laginaren barnean dauden adibiderik aipagarrienak atxikituko dira.

Gauzak horrela, aztertutako egun guztietan Quezadaren nazionalitatearen berri eman duen egunkari bakarra *ABC* izan da. Beste era batera esanda, analizatutako bost egunetan *ABC*n publikatu diren diskurtso informatibo denetan emakumearen herritartasunaz hitz egin da. Horiek horrela, esaldirik esanguratsuena martxoaren 12an publikatutako azpitituluan aurkitzen da, horietan ondorengoa irakurri daiteke: “La principal sospechosa, **de origen dominicano**, mostró en 2013 su repulsa por el doble crimen de José Bretón”. Era berean, *ABC* izan da unitate informatibo berdinean emakumearen atzerritar kondizioa gehien errepikatu duen komunikabidea, konkretuki testu bakarrean hiru bider aipatu du.

Ondoren, Ana Juliaren immigrante kondizioa gehien gogoratzen duen bigarren egunkaria *El Mundo* izan da. Izan ere, Ana Juliaren nazionalitateaz ia egun guztietan —zehazki, analizatu diren bost eguneko laginean lau egunetan— landu da. Aurki daitezkeen etsenpluetatik nabarmengarriena ondorengoa da: “Los **20 años** que Ana Julia Quezada vivió en Burgos fueron turbios, rodeados de muerte. Al poco de llegar de **República Dominicana**…” (Herráiz eta Ortiz, El Mundo, 2018/03/13). Hortaz, atxikitutako lerro horiek dira unitate informatiboari hasiera ematen dioten lehenengo esaldiak. Hala, bere etorkin kondizioa argi uzteko Espainian daramatzan urteei erreferentzia egin eta ondoren bere jatorria zehazten zaigu.

Ildo beretik, *El País* egunkarian topatutako etsenplu izendagarriena, martxoaren 12an idatzitako unitate informatiboan ikusi daiteke. Hau da, testuko lehenengo lerroek honela diote: “A Ana Julia Quezada, de **origen dominicano** y pareja de Ángel Cruz, padre del pequeño desaparecido, le precede un **pasado que ahora se pone bajo sospecha**” (Ortega, El País, 2018/03/12). Horrez gain, atzerritarra dela jakin eta inolako dudarik ez geratzeko lerro gutxi batzuk beherago Espainian bizitzen daramatzan urteak zehazten zaizkigu: “Su historia de **más de 20 años en España** comienza a mirarse con lupa”.

Bestalde, nazionalitateari emandako tratamenduan beste medioetatik bereizten den *La Vanguardia* aurkitzen da. Izan ere, analisia burututako egunetan emakumea immigrantea dela gutxien aipatu duen egunkaria izan da, hau da, publikatu diren unitate informatiboetan, emakumearen jatorria bi egunetan zehaztu da. Gainera, beste kasuetan ez bezala, *La Vanguardia*k herritartasunaz hitz egin duen artikuluetan datu hori testuaren gorputzean zehaztu dela esan beharra dago.

- Emakume gaiztoa:

Analizatutako egunkariek Gabrielen amaren eta Quezadaren arteko dikotomia marrazten dutela esatea posible da. Izan ere, emakume onaren eta emakume gaiztoaren arteko talka erakusten da. Hori lortu ahal izateko, diskurtsoen eraketaren bitartez, kontrakoak diren bi aktore azaltzen zaizkigu: Gabrielen ama (Patricia Ramirez) eta umearen amaordea (Ana Julia Quezada).

Unitate desberdinen bidez, Gabrielen ama bihotz oneko pertsona dela erakusten da. Hala, gertatutakoaren ondoren aurrera jarraitzeko borrokatzen duen emakume indartsu gisa azaltzen zaigu. Gainera, irakurlea Patriciaren ontasunaren ideia bat egin dadin zenbait informazio publikatzen dira. Besteak-beste bere ontasuna transmititzeko egunkariek erabilitako adibiderik esanguratsuena hau da: atxiloketaren biharamunetik aurrera Quezadaren aurka sare sozialetan ematen ari ziren gorroto mezuak geldiarazi eta horiek ez hedatzeko eskakizuna egin zuela aipatzea —“Patricia Ramírez hizo un llamamiento para «que quede el amor» y recordar que su «‘pescaíto’ ya está nadando hacia el cielo»” (Ramos, El Mundo, 2018/03/13); “La madre, en declaraciones a Onda Cero, agradeció las muestras de cariño y solidaridad y expresó su deseo de que cesen los mensajes de odio contra la detenida” (Ortega, El País, 2018/03/13)—.

Esan bezala, medio guztietan amaren ontasuna azpimarratzera zuzentzen diren zenbait datu ematen dira. Baina, *ABC* eta *El País* egunkarien kasua da aipagarriena, izan ere, espresuki Gabrielen amaren egite onak goratzera zuzentzen diren artikuluak publikatu baitituzte: “Patricia Ramírez, la voz de una busqueda sin rencor” (Ortega, El País, 2018/03/16) eta “«Tenía la esperanza de ablandarla y de que se viniera abajo, de que lo soltara»” (Morcillo eta Muñoz, ABC, 2018/02/13).


ENDURECIMIENTO DEL CÓDIGO PENAL

ESPAÑA

Los valores mostrados por la madre del niño Gabriel Cruz han conmovido a la sociedad. Desde el primer momento se puso al frente de la crítica situación

Patricia Ramírez, la voz de una búsqueda sin rencor

Generó la compasión de todos, excepto de la autora del crimen

Se sobrepuso a la devastación inicial para intentar encontrar a su hijo

El juez envía a prisión incondicional a la homicida confesa

*El País* (2018/03/16).


ESPAÑA

Operación Nemo · La fortaleza de una madre

«Tenía la esperanza de ablandarla y de que se viniera abajo, de que lo soltara»

«Es mío»

LA FAMILIA DOMINICANA LA CALIFICA DE «DEJADA»

La madre de Ana: «El demonio la indujo a cometer el hecho»

*ABC* (2018/03/13).

Bestaldean, Gabrielen amaordea den Ana Julia aurkitzen da. Bera emakume gaizto eta manipulatzaile gisa erakusten zaigu. Testuetan Gabrielen aita Errepublika Dominikarrera eraman nahi zuela esan eta horrekin bat umearekin zuen erlazio kaskarraz hitz egiten da. Adibidez, “Ana se sentía rechazada por el crío y que este se interponía en sus planes de trasladarse en un futuro a vivir con Ángel a la República Dominicana” (Navarro, La Vanguardia, 2018/03/13).

Hori gutxi balitz, hainbat diskurtsotan Quezada deskribatzeko Gabrielen familiarrek, ezagunek edota auzokideek esandako mespretxuzko aipuak aurkitu daitezke. Adierazpen horiek ez dute informaziorik eskaintzen, gorrotoa hedatzeko soilik balio dute. Esate baterako, “un demonio vestido con piel de cordero” (Pérez, ABC, 2018/03/12).

Era berean, kakotx artean jartzen diren adierazpenak aurki daitezke. Hala, kakotx horiek beste norbaitek esanikoa dela adierazten badu ere, testuan berba konkretu hori erabiltzeak ez du inolako informaziorik ematen eta egunkariaren intentzioak argi uzten ditu. Horren etsenplu dira “finalmente **“la bruja”**, como la calificó metafóricamente la madre del pequeño, confesó” (Ceberio, El País, 2018/03/14) edota “Ana Julia Quezada –«**la bruja del cuento**», como la definió tras el funeral Patricia, la madre de Gabriel– es una mujer sin escrupulos” (ABC, 2018/03/14) bezalako esaldiak.

- Perfil soziala:

Arestian esan bezala, nazionalitatea aipatzea jazotakoa ulertzeko beharrezkoa ez den moduan, perfil sozialaz hitz egiteak ez du egunkariak izan beharreko helburu informatiboa betetzen. Horiek horrela, aukeratutako egunkari guztiek ez dute Quezadaren pribatutasuna errespetatu, hots, bere bizitza pribatuari buruzko informazio ugari publikatu baitute. Horri esker, irakurleek emakumearen izaerari buruzko ideia bat egin eta bere irudi mentala sortuko dute. Era berean, Quezadaren bizitza pertsonala jorratzearen xedea artikuluei sentsazionalismo eta morboa gehitzea da.

Ikergaian zentratzen diren diskurtsoek Ana Juliaren perfil sozialari buruzko informazioa asko ematen dute. Hala, Espainian daramatzan urteetan izandako erlazio pertsonalen inguruko informazioa da gehienbat atxikitzen dena. Horiek horrela, iraganean izandako bikote ohietako bitan jartzen da fokoa: Burgoseko senar ohia eta elkarrekin “*Black*” izeneko puba ireki zuen gizona.

Horrez gain, analizatutako diskurtsoetan senarraren familiarekin zein Gabrielekin zuen harremanaz, bere lanaz edota burututako ikasketei buruz mintzo dira. Hurrengo lerroetan medioen bitartez eraikitako Quezadaren izaeran irudia hiru bloke handitan zatikatuta azalduko da: munstroa, diruzalea eta enbidia.

1. “Munstroa”:

Publikatu diskurtsoetan Quezadak umea erail eta ondorengo egunetan ezer gertatuko ez balitz bezala portatzen zela kontatzen da. Hau da, “munstroek” bezala sentimendurik ez daukan emakumea dela azaltzen zaigu. Era berean, diskurtso horien barnean “gezurtia”,

“hotza”, “faltsua” eta “manipulatzailea” dela aditzera ematen da. —“Las dos semanas siguientes asumió e interpretó el papel de madrastra afligida, liderando la búsqueda del niño y convirtiéndose en uno de los principales apoyos de Ángel y Patricia” (Navarro, La Vanguardia, 2018/03/14); “La pareja del padre estaba en primera fila frente a las cámaras y a los micrófonos. Serena y fría, como siempre” (Rodríguez eta Roces, El Mundo, 2018/03/12)—. Halabeharrez, ideia horiek transmititzeko hiru gertaera klabe atxikitzen dira: mugikorraren desagertzea, kamisetaren aurkikuntza eta komunikabideekiko jarrera.

Lehenik, emakumearen mugikorrarekin izandako gora-beherak aurkitzen dira. Hau da, emakumeak egindako lehen adierazpenetan mugikorra galdu zuela esan eta zuhaixka baten atzean aurkitu zela aipatzen da, ondoren ikertzaileek mugikorra eskatu ziotenean berriz galdu zuela zioela kontatzen da. Esate baterako: “Su teléfono móvil también fue motivo de sospecha para la Guardia Civil. Hasta en dos ocasiones fue requerida para que lo entregara, pero Ana Julia dio largas y aseguró que lo había perdido” (Lázaro, El Mundo, 2018/03/13). Horrekin, gezurretan aritu dela interpretatu eta ingurukoak engainatzen saiatzen zela adierazten zaigu.

Bigarren arrazoi bezala kamisetaren agerpena aurkitzen dugu. Izan ere, polizia agenteek eta boluntario desberdinek erregistratuta zuten toki batean umearen kamiseta garbia aurkitu zuela kontatzen da. Bilaketak egindako egunean gunea erregistratu eta kamiseta bertan ez zegoela azaltzen da. Hala, agenteak engainatzeko emakumeak berak bertan utzi eta aurkitu zuenaren plantak egin zituela esaten zaigu. Adibidez, “sorprendió porque esa misma zona ya había sido rigurosamente peinada y la prenda no estaba” (Navarro, La Vanguardia, 2018/03/12).

Horrez gain, pertsona “faltsua” eta “hotza” dela transmititzeko Quezadak komunikabideen aurrean izandako jarrerari egiten zaio erreferentzia. Esate baterako, “Siempre al frente, junto al padre del pequeño, Ana Julia mantuvo la sangre fría y no dio muestras de nerviosismo aparente” (Rodríguez eta Roces, El Mundo, 2018/03/12) edota “El documento sonoro es particularmente impactante porque se ve cómo esta mujer pasa del llanto a la más absoluta frialdad en décimas de segundo” (ABC, 2018/03/14). Horrez gain, medioetan umearen izaerari buruz esandakoak eta bere bikotekideari (Gabrielen aita) ematen zizkion musu eta besarkadez hitz egiten da. Hala, analizatutako informazio unitateek Ana Juliak kontzentrazioetan izandako portaeraz aipamen ugari egiten dituzte; horri ikusgarritasuna eman eta irakurleei inolako dudarik ez uzteko, aktoetan Gabrielen aurpegia duen kamiseta jantzita daramala argi ikusten den emakumearen hainbat argazki gehitzen dira.

Arestian aipatutakoa gogoratuz, ezer egingo ez balu bezala, emakumea uneoro aktuatzen aritu dela transmititu nahi da. Medioen aurrean zuen portaera azaltzeko aukeratutako egunkariek hainbat adjektibo kalifikatibo gehitzen dituzte, testuan subjektibotasuna argiratuz.

2. Diruzalea:

Analizatutako medio guztien diskurtsoetan Quezada gizonezkoengana beraien diruagatik hurbiltzen den pertsona diruzalea eta interesatua denaren ideia igortzen da. Horren etsenplu argiak dira espresuki Quezadan zentratutako ondorengo titularrekin publikatutako artikuluak: "«Era mala, tenía doble cara; sólo quería dinero»" (Herráiz eta Ortiz, El Mundo, 2018/03/13) edota "De un club de alterne a lograr el«sueño español» en Burgos" (Jimeno, ABC, 2018/03/13).



20 ESPAÑA
Operación Nemo El pasado

De un club de alterne a lograr el «sueño español» en Burgos

Los vecinos recuerdan la «obsesión por el dinero» de Ana Julia durante las dos décadas que vivió en el barrio

ISABEL JIMENO
BURGOS

PRIMER MARIDO
«El problema llegó cuando él se quedó sin trabajo; le dejó y cayó en una depresión»

PAREJAS SENTIMENTALES
«A uno mayor le quiso sacar los cuartos y no pudo; a otro le desplumó»

«No se adaptaba»

SE PRECIPITÓ POR UN BALCÓN HACE 22 AÑOS
Retoman la investigación de la «muerte accidental» de su hija

ABC (2018/03/13) — *ABC* (2018/03/13).



EL MUNDO. MARTES 13 DE MARZO DE 2018
ESPAÑA

ANA JULIA QUEZADA
Detenida por la muerte de Gabriel. En Burgos se labró fama de mujer interesada que se acercaba a los hombres por dinero: en su localidad natal también claman contra ella

«Era mala, tenía doble cara; sólo quería dinero»

«Se llevó las joyas de casa, sacó dinero de las cuentas...», cuentan en Burgos

«Convenció a mi padre para que la hiciera beneficiaria de un seguro de vida»

«La población está indignada y llena de odio», dicen en su localidad natal

VACACIONES EN ALMERÍA

*El Mundo* (2018/03/13).

Aipatutako izaera hori duela ulertzera emateko, zenbait gertaera kontatu eta auzokideek, iraganeko bikotekideek edota horien familiakoek emakumearen inguruan esandako deklarazioak aprobetxatzen dira. Hala, diskurtsoaren baitan adierazpen horiek jasotzeak emakume latinoamerikarren inguruan sortutako estereotipo eta aurreiritziak indartzen laguntzen du. Hau da, informaziorik gehitzen ez duten deklarazioak jartzeak ez du inolako beharrik, albisteari morboa gehitu eta gorrotoa zabaltzeko soilik balio baitute.

Gauzak horrela, medioek Ana Juliari soilik dirua interesatzen zitzaiola argitzen dute. Izan ere, bere bikote ohi batek Quezada deskribatzeko esandako aipu zuzen baten bitartez "kapritxo garestiak dituen emakumea" (Ortega, El País, 2018/03/13) dela aipatu eta uneoro mugikorrak aldatzen zituela kontatzen da. Era berean, Burgoseko auzoan bizi zen denboraldian izandako "diruarekiko obsesioaz" (Jimeno, ABC, 2018/03/13) hitz egiten dute bere auzokideek. Hala, adierazpen desberdinen bitartez, Espainian bizi izandako urteetan "gizonezko helduekin" (Herráiz eta Ortiz, El Mundo, 2018/03/13) harremanak izaten zituela esan eta bere azken xedea beraien diruaz aprobetxatzea zela kontatzen zaigu.

Gainera, une honetan langabezian zegoela esan eta Gabrielen aitaren kontura bizi zela argi uzten da. Berriz ere, interes ekonomikoak motibatzen diola eta bere bikotearen diruaz

bizi dela ulertzera ematen da: “Dependía en parte económicamente de Ángel Cruz, padre del menor asesinado, y se fue a vivir con él a su casa de Puebla de Vícar” (Ortega, El País, 2018); “Según relata uno de los hijos de este empresario a EL MUNDO, Ana Julia Quezada terminó denunciada por apropiarse de grandes cantidades de dinero y joyas del empresario mientras éste agonizaba y poco después de su muerte por cáncer.” (Herráiz eta Ortiz, El Mundo, 2018/03/13); “Los familiares del hombre dicen a El Correo de Burgos que tenían buena imagen de ella hasta que comprobaron a su muerte movimientos extraños de cuentas y una denuncia de él por robo de joyas en su piso” (Jabois, El País, 2018/03/13).

Are gehiago, instantzia polizialek delituaren zergatien inguruan informatzerakoan bi aukera azaltzen dituzte: emozionala eta ekonomikoa. Puntu honetan atal ekonomikoaz hitz egitea interesatzen zaigu. Halaber, arrazoi ekonomikoetan fokoa jarriz, umearen desagerpenarekin erreskate bat eskatu nahi zuela esaten da. Izan ere, delituaren nondik-norakoak ezagutu aurretik, Ana Julia umearen egonlekuaren inguruko informazioa ematen zuen pertsonari milioika euroko ordainsaria ematearen ideian “tematzen” zela esaten zaigu —Hau da, “la mujer había intentado en los últimos días que la familia del menor ofreciera una recompensa de 30.000 euros si alguien ofrecía pistas del paradero del pequeño” (Navarro, La Vanguardia, 2018/03/12) edota “fue Ana Julia Quezada, detenida desde el domingo, la persona que más insistió a los padres de Gabriel para que ofrecieran una recompensa en metálico a todo aquel que aportara datos sobre su hijo” (Lázaro, El Mundo, 2018/03/13)—.

3. Enbidia:

Egunkarien informazioetan emakumeak erraildako umearekin eta honen familiarekin duen erlazioaz hitz egiten da. Bertan, Gabrielekin eta gainontzeko familiako kideekin harreman txarra duela esaten zaigu. Ana Julia pertsona inbidiosoa eta posesiboa denaren ideia lantzen da. Bere bikotekidearen gertuko pertsonen zeloak dituela zehaztu da, zelo horiek delituaren mobil bezala aurkeztu eta emakumearen zoramenaren puntuan dagoela ulertzera ematen zaigu.

Aurreko blokean esan bezala, delituaren zergatien inguruan informatzerakoan bi aukera aurkezten dira: emozionala eta ekonomikoa. Atal honetan, harreman afektiboekin zerikusia duen arrazoi emozionalei egingo zaie erreferentzia. Izan ere, Quezadak umearen zeloak edota honen gurasoen arteko erlazio onaren inbidia zuela esaten zaigu. Teoria honen arabera, emakumearentzat Gabrielek “traba” bat suposatzen zuela esaten zaigu: “El móvil sería emocional, por los celos y el estorbo que suponía para su vida con Ángel el pequeño Gabriel” (Ortega, El País, 2018/03/13).

Era berean, *ABC*k haratago doa. Izan ere, Erika Montañesek (ABC, 2018/03/12) idatzitako albistean, erailketa burutzearen arrazoiak azaltzeko asmoz, esparru desberdinetako aditu ugarik emandako azalpenak biltzen dira. Alde batetik, instantzia klinikoetara jo eta burutik sano ez dagoela aditzera ematen da. Psikiatra forense eta psikologo kliniko adituek emandako hipotesiei buruz hitz egin eta erailketaren arrazoiak justifikatzeko «egonezin emozionala» sufritzen zuela azpimarratzen da. Horiek horrela,

emakumearen portaera “zeloek” eta “posesibitateak” karakterizatzen dutela azaltzen da. Hala, emakumeak Gabrielen eta baita bere gurasoak elkarren artean zuten loturaren enbidia zuela esaten da.

Are gehiago, «estabilitate emozional falta» horren ideiari indarra emateko, genero biolentzia kasuetan aditua den Sara Garcíaren eta Madrilgo Kriminologoen Eskolako presidentea den Angel Garcia Collantesen esanei erreferentzia egiten zaio. Bi aditu horiek, Quezadak umeak protagonismoa kentzen ziola pentsatzen zuela esan eta berarekiko “zelo patologikoak” zituela argudiatzen dute. Azkenik, Enrique García izeneko psikologoak, emakumeak ez zuela inolako alhadurarik erakutsi esan eta bere pertsonalitateaz zein inteligentziaz mintzo da. Hots, Garcíaren hitzen arabera, Ana Juliak izaera “psikopatikoa” eta “moztasun intelektuala” du.


ESPAÑA 19
El posible móvil El crimen de Gabriel Cruz


# «Pudo desarrollar celos patológicos hacia el niño»

▸ Psicólogos clínicos creen que la figura de Gabriel «estorbaba» a Ana Julia Quezada

E. MONTAÑÉS
MADRID

Hay que esperar a los frutos que dé la investigación para determinar, desde el punto de vista psiquiátrico y clínico, cuál es el grado de responsabilidad de Ana Julia Quezada en la muerte del hijo de su pareja, el pequeño Gabriel Cruz, y qué le llevó presuntamente a acabar con su vida. Pero, en la explicación recabada entre varios expertos en Psicología, la motivación más repetida es la «inestabilidad emocional», derivada en celos y posesividad, que padece una persona en su entorno para hacer algo así.

Con las cautelas y la presunción de inocencia por delante, entre las hipótesis que disparan psiquiatras forenses, como José Cabrera, se encuentra la combinación más «antigua del mundo»: «Odios, celos y la presencia incómoda del niño en su vida. También pudo desarrollar cierta envidia a Gabriel porque no llega a conseguir la estabilidad emocional con su pareja que desea por la existencia del niño y por el vínculo que une al padre, Ángel, con su anterior pareja, Patricia».

**Inestabilidad emocional**

Una tesis que abona Sara García, especialista en tratar casos de violencia de género, quien comprueba diariamente en su trabajo cómo los niños son utilizados para agredir a la otra parte, tanto por hombres como por mujeres, y que la explicación más plausible en este caso sería que Ana Julia hubiese desarrollado «celos patológicos hacia el propio niño por robarle el afecto de su padre», y que fuese el pequeño el motivo más común de conflicto en la pareja.

Con suma prudencia se manifiesta el presidente del Colegio de Criminólogos de Madrid, Ángel García Collantes, quien no descarta que ella sintiera que «el niño le quitaba protagonismo».

En un plano secundario de esa relación, ella da cuenta de «una estabilidad emocional muy deteriorada», abunda la psicóloga especialista en violencia de género, que introduce otro ingrediente: «Puede obedecer a una fuente traumatizante, que ella haya vivido alguna escena con el niño que le recordase ese episodio y haya sufrido un brote. Las palabras que ella dice cuando la detienen mirando al maletero –"Lo siento. Te quiero"–, dejan entrever que tiene conciencia, y que ha disociado perfectamente su acción».

**Relación en ciernes**

Ana Julia Quezada y Ángel Cruz apenas llevaban un año manteniendo su convivencia sentimental. Ayer, varios vecinos de la pareja reprodujeron que la relación entre la dominicana detenida y el pequeño era de continua fricción. De probarse que fue ella la autora del crimen, «demostraría que tiene una personalidad psicopática, por la falta de empatía mostrada estos trece días, acompañando a su pareja en el dolor. Tampoco ha dado muestras de remordimiento ante semejante hecho luctuoso», añade el psicólogo Enrique García Huete. Lo último que certificaría su personalidad «extrema» es que «no anticipa el castigo a medio y largo plazo, que sería que su novio se quedaría destruido el resto de su vida», arguye. «Sería un conmigo o con nadie», como hacen los agresores machistas, resuelve García Huete, profesor de la Universidad Cisneros.

Ana Julia ha demostrado «cortedad intelectual», cree Cabrera, que añade que «se puede matar por amor, anómalo y patológico», sobre todo cuando se alimentan unas perspectivas que se creen frustradas y se canalizan respecto a un tercero. Muchas veces en la historiografía clínica se ha mostrado cómo se planifica el futuro –en este caso, solo construido por dos personas– y los demás sobran y se actúa en consecuencia. «El niño, para estas personas, no cabe en la relación de pareja», añade.

*ABC* (2018/03/12).

- <u>Erabilitako hizkuntza:</u>

Kasuaz informatzeko erabilitako hizkuntzaren inguruan hitz egitea beharrezkoa da. Izan ere, aztertutako egunkarien laginean, era batera edo bestera, sentsazionalismora jotzen duten adierazpenak agertu dira. Hala, jazoera jorratzean hainbat hitz potolo eta estilo-figurak (metaforak eta hiperboleak) erabili dira.

Aipagarria da, diskurtsoak eratzerakoan estilo-figura desberdinak erabiltzeak sentsazionalismoan erortzea eragiten duela. Hala, diskurtso-figuretatik gehien erabili den baliabidea metafora izan bada ere, zenbait hiperbole aurkitu dira. Ondoren metaforaren bitartez eratutako zenbait esaldi atxikitzen dira: “Almería llora con rabia silenciosa los restos del pequeño Gabriel” (Pérez, ABC, 2018/03/13); “Almería, entretanto, amaneció

convulsionada y durante la mañana se registraron multitud de concentraciones en apoyo y solidaridad a Patricia y Ángel" (Ramos, El Mundo, 2018/03/13); "Se la pudo ver deshecha de dolor en esos primeros momentos de desconcierto" (Ortega, El País, 2018/03/16)…

Bestalde, hauek dira erabilitako hiperboleen etsenplu batzuk: "Los padres del niño, Ángel y Patricia, se volcaron desde ese momento en una búsqueda desesperada. (Navarro, La Vanguardia, 2018/03/12); "El silencio sepulcral que presidía la tarde sólo se rompió cuando el coche que portaba el féretro con los restos de Gabriel se adentró en la calle Navarro Rodrigo" (Pérez, ABC, 2018/03/13 ); "Quezada también dejó en sus más de veinte años de vida en Burgos un rosario de víctimas que no la olvidan" (Jimeno, ABC, 2018/03/14).

- Kontrol formala:

Aztertutako unitate guztietan kontrol formala osatzen duten aktoreek garrantzia handia daukate. Arestian marko teorikoan azaldu den bezala, kontrol informalak funtzionatzen ez duenean, kontrol formala eman beharko da (Larrauri, 1995; hemen aipatua: Macaya, 2013); hau da, herritarren segurtasuna bermatzea Estatuaren aktore desberdinen esku egongo da.

Gauzak horrela, nahiz eta gehienbat kontrol formal polizialaz hitz egin, kontrol judizial zein Estatuko partidu politikoek emandako babesa aipatzen da. Baina, inongo dudarik gabe, Guardia Zibilen jarduna da besteengandik gailentzen dena.

Horiek horrela, Guardia Zibilak egindako lana behin eta berriz aipatzen da. Testuetan emakumea lehenengo unetik susmagarri nagusia zela azpimarratu eta bera harrapatzeko poliziek burutu zuten lanaren deskribapen zehaztua ematen zaigu. Era berean, "los agentes seguían a la sospechosa las 24 horas del día" (Navarro, La Vanguardia, 2018/02/12); "Era sometida a vigilancia permanente" (Muñoz, ABC, 2018/02/12); "En todo momento, el control sobre ella fue absoluto" (Lázaro, El Mundo, 2018/03/12)… bezalako esaldien bidez gorpua aurkitu arte deskantsatu gabe jardun zutela ulertzera eman eta poliziek egindako lana goraipatzen da.

Gainera, agenteak Gabrielen kasuan oso inplikatuak zeudela jakinarazteko egunkariek hainbat gertaera puntual kontatzen dituzte. Esandako inplikazio horren adibide bezala, agenteek umearen gorpua Ana Juliaren kotxearen maleteroan aurkitu zutenean elkar besarkatu eta negarrez hasi zirela esaten zaigu.

Aipagarria da, polizien lanaren nondik-norakoez informatzerakoan inbestigazioan izandako beste susmagarri batez hitz egiten dela. Baina, ez da pertsona horren inguruko datu askorik eskaintzen. Hau da, egunkariek Gabrielen amaren jazarlea den 42 urteko gizona, Diego Manuel F. A. izenarekin identifikatzen dute. Quezadaren kasuan ez bezala, ez da bere jatorria, bizitza pribatua ezta bere abizenaren berri ematen.

- Barneko argazkiak:

Orokorrean, lanerako hautatu diren egunkarien barnealdean, testuei laguntzen dieten argazki ugari erabili dira. Horietan azaltzen den edukia analizatuz informazio esplizitu asko ematen zaigu.

Irudi gehien erabili dituen medioa *ABC* izan da, bere baitan tamaina ezberdinetako 36 argazki zenbatu ahal izan dira. Ondoren, 19 fotografia publikatu dituen *El Mundo* aurkitzen dugu. Azkenik, medio bakoitzak 9 argazki gehituz, *La Vanguardia* eta *El País* ageri dira.

Horiek horrela, egunkarien barneko orrialdeetan argitaratutako fotografien edukia nahiko heterogeneoa da, bertan une edo gai desberdinei aipamena egiten baitzaie: Ana Julia elkartasun aktoan, atxiloketaren momentua, Guardia Zibilak, homizidioaren eszena, Gabrielen hileta…

Dena dela, edukietan gai desberdinak lantzen badira ere, beraien artean komunean duten ezaugarria argazkietako protagonistak dira: Quezada, Guardia Zibilak eta Gabrielen familia. Ondorengo lerroetan aipatutako hiru subjektuei buruz transmititzen den mezuan sakondu eta etsenpluak emango dira.

Lehenik, aztertutako egunkarietan erabili diren Ana Juliaren argazkien edukia aztertuko da. Halabeharrez, behean atxikitako adibideetan ikusi daitekeen moduan, lau egunkariek beraien orrialdeei ikusgarritasuna emateko emakumearen argazki desberdinak publikatu dituzte. Ikusi daitezkeen irudi gehienak Gabrieli elkartasuna adierazteko egindako kontzentrazioetan ateratakoak dira.

Gabrielen babeserako egindako aktoetan ateratako fotografia batzuetan emakumea bakarrik ageri bada ere, beste irudi batzuetan bere bikotekide eta Gabrielen aita denari besarkatzen ikusi dezakegu. Horrekin bat, babes ekitaldi horietan Quezadak umearen argazkia daukan kamiseta jantzita daramala ikusteak ezinbesteko garrantzia dauka.

Publikatutako argazkiek emakumea “manipulatzailea”, “maltzurra” eta “gezurtia” denaren ideia transmititzen digute. Izan ere, kontzentrazioetan ezer gertatuko ez balitz bezala konportatu eta ingurukoak engainatuta zituela iradokitzen da; hau da, umea hil ondoren Quezada aktore lanetan zegoela pentsaraztea eragiten dute. Gauzak horrela, irakurleak argazkietan ikusitakoarekin, inkontzienteki bada ere, emakumearen irudi mentala eraikitzen du.


ESPAÑA

TRAGEDIA EN ALMERÍA

La Guardia Civil cree que la detenida por la muerte de Gabriel actuó sola

La pareja del padre trasladaba el cadáver en el maletero del coche

El viernes pasado fue interrogada y estaba siendo vigilada

*El País* (2018/03/12).


Sociedad

Un suceso que ha conmocionado a la opinión pública

Detenida la pareja del padre de Gabriel con el cuerpo del niño

Ana Julia Quezada fue sospechosa desde el primer día

La presunta asesina llegó a Almería para montar un bar

*La Vanguardia* (2018/03/12).


ESPAÑA

La novia del padre de Gabriel ocultó el cadáver en un pozo

Desde que «encontró» la camiseta fue sometida a vigilancia permanente; se descarta la implicación de su pareja

Fue detenida al entrar con un coche en un garaje de Vícar: el cuerpo estaba embarrado y envuelto en una manta

Los escenarios del crimen

13 días

77 kilómetros

1.500 profesionales

2.600 voluntarios

Cambiar de sitio el cuerpo

Coartada inútil

Mala relación

*ABC* (2018/03/12).

Argazkien edukietan ikusi daitekeen beste bloke garrantzitsu bat kontrol formala da. Egun desberdinetan bada ere, egunkari guztietan kontrol formala osatzen duten aktoreak ageri diren irudiak publikatu dira. Kasu horietan ikusi daitezkeen kontrol formak instantzia polizialek, hau da, Guardia Zibilek burututakoak dira. Fotografia batzuetan teorian Ana Juliaren atxiloketaren unea edota krimenaren eszenatokia ageri bada ere, protagonismoa Guardia Zibilek hartzen dute.

Gauzak horrela, argazkietako edukietan ikusi daitekeen kontrol formalak Estatuak gizartean ezartzen duen kontrola erakutsi eta herritarrei segurtasun sentsazioa transmititzen zaie. Hala, fotografietan Guardia Zibilak eginiko lana azpimarratu eta "heroi" bezala azaltzen zaizkigu.


ESPAÑA

TRAGEDIA EN ALMERÍA

La detenida encontró la camiseta interior del pequeño en un lugar ya rastreado. El hallazgo convirtió a la mujer en la principal sospechosa

Diez claves de una desaparición dramática

Un crimen en pleno debate sobre la prisión permanente

El rastro del menor se perdió cuando iba a jugar a casa de unos familiares

El padre ofreció 10.000 euros por información sobre su paradero

*El País* (2018/03/12).


Sociedad

La tragedia de Almería

Ana Julia confiesa el crimen

La mujer declara que discutieron y que Gabriel la amenazó con un hacha

La detenida regresó a diario, con amigos e incluso el padre, a la finca en la que tuvo enterrado al cadáver

*La Vanguardia* (2018/03/14).


ESPAÑA

Operación Nemo

Las andanzas de la detenida

Expareja a las que «desplumó», una hija «acosada» y otra muerta en un extraño caso marcan su vida

Las otras «víctimas» de Ana Julia

La autora del crimen: «Es un niño muy guapo y obediente»

*ABC* (2018/03/14).


ESPAÑA

El juez manda a Ana Julia a prisión por asesinato y detención ilegal

La responsable de la muerte de Gabriel se enfrenta a delitos penados con cárcel permanente

*El Mundo* (2018/03/16).

Gabrielen gurasoen argazkiak ugari publikatu dira. Nahiz eta fotografia batzuk kontzentrazioetakoak izan, gehienak umearen hileta egunean ateratakoak dira. Gurasoak agertzen diren argazki guztiek zerbait komunean dute: sufrimendua. Hala, semea desagertua dagoela pentsatzean hura aurkitzeko borrokan eta gertatua ezagutu ondoren umea lurperatzean bizi izandako une latzak azaltzen zaizkigu.

Horrez gain, fotografien edukian dagoena interpretatuz, jazoerak gurasoen arteko batasuna sendotu duela esatea posible da. Orokorrean, argazki horien helburua irakurleen sentikortasunarekin jokatzea da. Hau da,  gurasoen sufrimendua islatu eta irakurleak beraienganako enpatia sentitzea bilatzen dela esan daiteke.


6 ENFOQUE

ENFOQUE 7

Ana Julia Quezada confiesa su crimen

Funeral y entierro de Gabriel Cruz

Un cuento de hadas para cerrar heridas

La vulnerabilidad de los padres de Gabriel Cruz contrastó ayer, sincronizada, con la frialdad del testimonio de la autora confesa de la muerte de su hijo. A las puertas de la catedral de Almería, Patricia Ramírez recitó un cuento infantil para tratar de coser la herida personal y social provocada por la muerte de su hijo. «Mi niño está en el cielo, jugando con sus pececitos, y la bruja ya no existe. Sacadla de las cabezas. La bruja ya está donde tiene que estar», dijo la madre de Gabriel tras la ceremonia religiosa y antes de que el cortejo fúnebre se dirigiera al cementerio de Fernán Pérez, en Níjar. Cientos de personas acudieron a la catedral almeriense, y también numerosas autoridades, como Soraya Sáenz de Santamaría y Juan Ignacio Zoido, que no soltó de su mano la bufanda azul que durante la búsqueda de Gabriel llevó su madre el cuello.

A solo unos cientos de metros y a la misma hora, Ana Julia Quezada confesaba su crimen: golpeó al niño con la parte roma de un hacha y luego lo asfixió, dice que en defensa propia. Lo hizo en la finca de Rodalquilar, a la que ayer volvió junto a la comitiva judicial que investiga el caso para reconstruir los hechos. La bruja del cuento de Patricia Ramírez no se ha ido todavía del escenario de fábula en el que hasta hace dos semanas vivió el pequeño Gabriel. [ESPAÑA]

A la derecha, Ángel Cruz y Patricia Ramírez, junto al féretro de su hijo, tras el funeral (sobre estas líneas) celebrado en la catedral de Almería. Arriba, Juan Ignacio Zoido, con la bufanda del pequeño Gabriel, que le regaló la madre del niño

*ABC* (2018/03/14).


ESPAÑA

La detenida por la muerte del niño Gabriel Cruz confiesa el crimen

Debate sobre la cadena perpetua en medio de la conmoción

PP y Ciudadanos presentan enmiendas para endurecer las penas

¿Qué pasa en Europa?


ESPAÑA

Gabriel murió asesinado el mismo día que desapareció

La autopsia revela que fue estrangulado y que su cadáver ha estado 12 días oculto • Miles de personas respaldan a los padres

ESPAÑA

Ana animó a los padres a ofrecer una recompensa

Patricia sospechaba de ella y le lanzaba mensajes en sus comparecencias públicas

*El País* (2018/03/16).		*El Mundo* (2018/03/13).

# 5. ONDORIOAK

Aurreko orrialdeetan burututako ikerketarekin amaitzeko, lanaren hasieran planteatutako hipotesiak bete diren edo ez konprobatuko da. Horretaz gain, emaitzen laburpena egin eta marko teorikoan azaldutako teoriekin kontrastatuko dira. Azkenik, ikerketaren indarguneak eta ahuleziak azaltzeko espazio bat eskainiko da.

## 5.1. Hipotesiak

Hipotesiek honela diote:

> H1→ Egunkari guztietan Quezada atzerritarra izateari garrantzia handia ematen zaio. Emakumearen nazionalitatea eta atzerritar kondizioa tituluan, azpitituluan edota sarreran agertzen dira.

Adierazitako hipotesi hau ez da guztiz betetzen. Izan ere, aukeratutako egunkari bakoitzak egindako Quezadaren atzerritar kondizioaren trataeran, alde nabarmenak ikusi daitezke. *ABC, El Mundo* eta *El País*ek nazionalitatea datu garrantzitsu bezala hartzen duten bitartean, *La Vanguardia*k ez du horrenbeste jorratzen.

Kontuan izan behar da, informazio testuen egituran azalduko diren ideiak garrantzia handienetik gutxienera hierarkizatu behar direla. Horiek horrela, Quezadaren herritartasuna artikulu gehienetan, testua hasi eta lehenengo lerroetan, sarreran eta baita azpitituluan aipatu zaigula esan beharra dago. Hortaz, diskurtso periodistikoetan emakumea immigrantea izateari garrantzia handia eman zaiola esatea posible da.

*ABC* izan da etorkin kondizioa gehien azpimarratu duen medioa, analisia burutu den bost egunetan jatorriaren inguruan mintzo izan da. Ostean, herritartasunaz lau egunetan hitz egin duen *El Mundo* eta hiru egunetan aipatzen duen *El País* aurkitzen dira. Azkenik, *La Vanguardia* medioaren kasuan, gainontzeko egunkarietan gertatutakoaren kontrakoa ematen da. Bertan, emakumea immigrantea dela bi egunetan kontatzen bazaigu ere, datu hori ez da lehenengo lerroetan azaltzen, testuaren gorputzean baizik.

Hala, unitate informatiboetan ematen den herritartasunaren aipamen errepikakorrak immigrazioaren eta delinkuentziaren inguruan dagoen estereotipoa indartzeaz gain, inplizituki arrazismoa hedatzea dakar.

H2→ Albistearen tratamenduaren bitartez emakume gaiztoaren estereotipoa sendotzen da.

Egunkarien diskurtsoen bidez, amaordearen arketipoa indartzen laguntzen dutela esatea posible da. Izan ere, testuetan kontrakoak diren bi pertsonaia aurkezten dira: Patricia Ramirez, Gabrielen ama, eta Ana Julia Quezada, umearen amaordea.

Alde batean, Gabrielen ama erakusten zaigu. Diskurtsoetan transmititutakoaren arabera, Patricia emakume ona da, bihotz oneko pertsona. Era berean, gertatutakoa ezagutu

ondoren indartsu mantendu dela adierazten zaigu; bere borroka errespetuan oinarritu dela esanez.

Beste aldean, Gabrielen amaordea den Ana Julia azaltzen zaigu. Unitate informatiboetan Gabrielen amaren guztiz kontrakoa dela ulertzera ematen da, hots, emakume gaizto eta manipulatzailea dela transmititzen da.

> H3→ Albistea ulertzeko beharrezkoak ez diren datu eta informazio ugari ematen da. Horrela, azaldutako kasuei morboa gehitzea bilatzen da.

Lehenik eta behin, hipotesi honetan eratutako baieztapena bete dela esatea posible da. Izan ere, aztertutako egunkari guztietan, kasua zuzenean lantzen duten diskurtsoetan inolako helburu informatiborik betetzen ez duten hainbat datu eman dituzte. Hau da, eratutako artikuluetan albistea ulertzeko eta horren jarraipena egiteko beharrezkoak ez diren aspektuak atxikitu dira.

Beraz, artikuluetako diskurtsoen eraketan morboa gehitzea bilatu dela esatea posible da. Izan ere, unitate informatiboen xede izan beharko litekeen informatzeko nahia bigarren maila batean utzi eta diskurtsoetan atxikitutako datu zein gertaeren bitartez, morboa sortzea bilatu da. Gauzak horrela, inolako informazio interesei erantzuten ez dioten hainbat datu eman dituzte: Ana Juliak bere facebook pertsonalean jarritako esaldiak, iraganean izandako bikotekide ohiak, Burgosen bizitako auzoa…

> H4→ Emakumearen perfil sozialaren berri ematen da. Informazioarekin bat emakumearen familia, nazionalitatea, egoera ekonomikoa… buruzko informazioa eskaintzen da.

Aurreko hipotesian aipatu den bezala, aztertutako lau egunkarietan emakumearen perfil sozialeko aspektu desberdinak landu dira. Beraz, pribatutasunaren eskubidea ez da hautatutako medioetan errespetatu, hau da, Quezadaren bizitza pribatura mugatzen diren hainbat gauza publikatu dituzte. Halabeharrez, igorri diren datu ugarik, Quezadaren izaeraren inguruko ideia bat egiteko pistak ematen dituzte. Izan ere, informazio pertsonal hauek ez daukate inolako helburu informatiborik, soilik emakumearen irudi mentala eraikitzeko balio dute.

Kasu honetan ere, *ABC* izan da egun kopuru handienean (4 egunetan) Ana Juliaren bizitza pertsonalaren inguruko informazioa landu duen egunkaria. Gainontzeko medioak, hots, *La Vanguardia, El Mundo* eta *El País* emakumearen bizitza pribatuaz hiru egunetan mintzo izan dira. Pribatutasuna urratu den uneetan gehienbat Espainian daramatzan urteetan izandako bikoteez eta Gabrielekin zein honen familiarekin zuen erlazioaz hitz egin da.

Aipagarria da, *ABC* eta *El Mundo* izan direla Quezadaren bizitza pribatua modu sakonenean eta zabalenean eskaini duten medioak. Izan ere, aipatutako medio bakoitzak espresuki emakumearen iraganean eta bizitza pribatuan barneratzen den artikulu oso bat

eskaintzen dute —*El Mundo*k martxoaren 13an eta *ABC*k 14ean—. Hala, publikatutako beste unitate informatibo batzuetan bere bizitza pertsonalaz hitz egiten bada ere, gertaeraren inguruko zenbait argibide ematen dira. Baina, adierazitako bi artikulu horietan ez da jazoeraren inguruko informaziorik eskaintzen, diskurtsoen helburu bakarra Quezada pertsona interesatua denaren irudia eratzea da.

> H5→ Egunkaria zenbat eta kontserbadoreagoa izan, orduan eta albiste gehiago Quezadaren kasuaren inguruan. Fenomeno berdina gertatzen da jazoeraz hitz egiteko eskainitako espazioari (zutabe kopurua).

Metodologian azaldutakoarekin bat, aukeratutako medioen linea editoriala erreparatzen bada, ia guztiak kontserbadoreak direla ikusten da. Hala, *El País* progresista den bitartean, *La Vanguardia*, *El Mundo* eta *ABC* egunkari kontserbadoreak kontsideratzen dira. Hori argitu ondoren, hipotesi honetan formulatutako baieztapena erdizka betetzen dela esatea posible da. Izan ere, kasuaren inguruan unitate gehien publikatu eta espazio handiena eman duen komunikabide kontserbadorea izan bada ere, Quezadaren kasuari espazio gutxien eskaini dion egunkaria ez da aukeratutako medio progresista bakarra (*El País*) izan. Hortaz, errealitateak ez du hipotesian planteatutakoarekin bat egin.

Gauzak horrela, *ABC* medio kontserbadorea izan da era zuzenean zein zeharka kasuaren inguruan albiste gehien publikatu eta jarraipen handiena egin duena; orotara 55 artikulu landu baititu. Aldiz, *La Vanguardia* (kontserbadorea) eta *El País* (progresista) izan dira gertaera gutxien jorratu duten egunkariak; bakoitzak guztira 27 artikulu publikatu ditu. Baina, jazoera zuzenean aztertzen duten testuei eman zaien espazioari begira, *ABC* izan da zutabe kopuru handiena (79 zutabe) eskaini duen egunkaria. *La Vanguardia*, aldiz, jazoerari espazio gutxien (49 zutabe) eman dion medioa da.

> H6→ Aukeratutako egunkariak kontuan izanik, *El Mundo*k kode deontologikoetan ezarritako printzipioen urrapen gehien egin ditu. Aldiz, *El País*ek printzipio etikoak gehien errespetatu ditu.

Azterketarekin amaitu ostean, hipotesi honetan planteatutako baieztapena betetzen ez dela esan beharra dago. Hots, kode deontologikoetan ezarritako printzipioetan oinarrituz eta egunkariek izandako trataera informatiboari erreparatuz, *ABC* egunkariak egin ditu urrapen gehien eta *La Vanguardia*k gutxien.

Kontuan izan behar da, aukeratutako lau egunkarietan kode deontologikoan ageri diren intimitaterako errespetua eta informazioaren objetibotasuna izan direla gehien hautsi diren printzipioak. Izan ere, akatsik errepikatuenak emakumearen bizitza pribatuaren inguruko aspektuez informatzea eta informazio objektiboa eta iritzia nahastea izan dira.

Horiek horrela, 4. hipotesian azaldu den bezala, *ABC* izan da egun kopuru handienean emakumearen intimitaterako eskubidea urratu duen medioa. Era berean, Gabrielen familiaren zein Ana Juliaren argazki gehien publikatu dituen medioa izan da, konkretuki tamaina desberdinetako 39 argazki publikatu baititu.

Aipatu bezala, kasuaren tratamenduan iritziaren eta informazioaren arteko nahasketa ematen da. Diskurtsoetan kazetariaren balorazioa aditzera ematen duten zenbait izenondo eta aditzondo aurkitzen dira. Horrez gain, testuen eraketan sentsazionalismoa izan da nagusi. Printzipio horien urraketa aipagarrienak *ABC*k egin ditu: “El mal estaba en casa” (ABC, 2018/03/12); “Gabriel murió estrangulado, tiene golpes y la detenida por el crimen no colabora” (Cruz eta Muñoz, ABC, 2018/03/13); “De un club de alterne a lograr el «sueño español» en Burgos” (Jimeno, ABC, 2018/03/13); edota “Las otras «víctimas» de Ana Julia” (Jimeno, ABC, 2018/03/14) bezalako titular sentsazionalistak irakurri ahal izan baitira.

Nahiz eta batzuetan errugabetasun presuntzioa errespetatu ez izan, printzipioaren hauste hori ez da oso modu nabarmenean egin. Tribunalaren epaia ezagutu aurretik gertaeraren inguruan mintzo diren unitateen titularretan Ana Juliari erreferentzia egitean ez da “*ustezko”* terminoaren erabilerarik egin. Baina diskurtsoaren gorputzean gutxi badira ere, aurkitu dira *“ustezko”* espresioaren erabileraren bat; testuen corpusean gehienbat, “*atxilotua*”, “*susmagarria*” edota “*akusatua*” bezalako adierazpenak erabili dira. Gauzak horrela, printzipio honen urraketaren kasurik aipagarrienak *ABC* eta *El Mundo* egunkariak egin dituztela esan daiteke. Izan ere, sententziaren aurretik argitaratutako azaleko tituluetan Ana Juliari aipu egitean “hiltzaile” gisa identifikatu diote.

## 5.2. Emaitzak

Analizatutako medio guztietatik *ABC* izan da Quezadaren kasuaren jarraipen handiena egin duena. Izan ere, zuzenean zein zeharka, informazio eta iritzi artikulu gehien (55 testu) eskaini dituen egunkaria izan da. Gainera, testu informatibo gehien argitaratu (23) eta zuzenean kasuaz informatzeko espazio handiena (79 zutabe) eskaini duen medioa izan da.

Aldiz, *El País* eta *La Vanguardia* izan dira jarraipen txikiena egin eta kasua gutxien jorratu duten egunkariak. Hau da, bi medio hauek zuzenean zein zeharka jazoeraz mintzo diren 27 testu publikatu dituzte. Gertaeraren inguruan zuzenean informatzeko emandako espazioari erreparatuz, nahiz eta desberdintasuna oso esanguratsua ez izan, *La Vanguardiak* eskainitako zutabe kopurua murritzagoa da. Hots, *La Vanguardia*k kasuari 49 zutabe ematen dizkion bitartean, *El País*en 62 zutabe hartzen ditu.

Bestalde, kode deontologikoei erreparatuz, hainbat printzipio errespetatu ez direla esatea posible da. Urraketa nabarienak nazionalitatearen aipamenean, intimitaterako eskubidean eta objetibotasun faltan aurkitu dira.

Nazionalitateari dagokionez, kode deontologikoek jasotzen dutenaren arabera, atxilotuaren jatorriak gertaeran inolako garrantzirik ez badauka ez da horren aipamenik egingo. Baina, analizatutako medio guztietan printzipio honen urrapena burutu eta Quezadaren jatorriari berezko inportantzia eman diote. Hala, diskurtso desberdinek, modu batean edo bestean, emakumearen herritartasuna azaldu dute. Horrek, medioek datu

horri eman dioten garrantzia erakusteaz gain, immigranteen inguruko aurreiritzi zein estereotipoak mantendu eta indartzen laguntzen du.

Era berean, marko teorikoan landu den bezala, komunikabideek publikatzen dituzten diskurtsoetan "*beraien*" (pertsona migratuak) egite txarrak eta "*gure"* (gizarte hartzailea) akzio onak nabarmentzen dituzte (Van Dijk, 2007). Kasu honetan, "*beraien"* kategoriaren baitan Ana Julia aurkitzen dugu, berak emakume immigrante eta delinkuentearen irudia hartzen baitu. Aldiz, "*gure"* kategorian Gabrielen familia, kontzentrazioetako parte hartzaileak eta Guardia Zibilak aurkitzen dira.

Bigarrenik, emakumearen pribatutasunaren eskubidea ez dela medio baten ere ez errespetatu azpimarratu behar da. Igorritako datu pertsonal gehienek morboa eta sentsasionalismoa gehitzeko balio izan dute, ez baitute testuen ulermenerako inolako garrantzirik ezta beharrik. Quezadaren bizitzako aspektu zein une desberdinen inguruko informazio asko ematen da: Errepublika Dominikarrean burututako ikasketak, bonolotoa tokatu zitzaiola, iraganean izandako Rufo txakurraren izena, senar ohia…

Laburbilduz, ikerketan aztertutako emaitzek egunkariek informazioari emandako tratamenduan izandako akatsak erakutsi dituzte. Horrela, autokritikoa izan eta kasuari emandako tratamendu informatiboa hobetzea ezinbestekoa da. Izan ere, egunkariek gizarteko norbanakoen iritzi eta pentsamenduen eraketan gauzatzen duten influentzia kontuan izanik, horietan publikatzen diren diskurtsoak zaintzea funtsezkoa da. Hala, informazioa ahalik eta modurik objektiboenean ematen saiatu behar dira.

### 5.3. Ikerketaren indarrak eta ahulguneak

GRAL honen bitartez, beste zenbait ikerketari bidea ireki nahi zaie. Izan ere, luzera mugak eta denbora falta direla eta, egilea lan honetan gehiago sakondu daitekeela kontziente da. Horregatik, etorkizuneko ikerketetarako proposamen bezala interesgarria izango litzateke burututako lan hau abiapuntu hartu eta On-Line egunkariekin konparaketa egin ahal izatea. Hala, Internet bitartez jende gehiagorengana iristeko dagoen aukera kontuan izanik, euskarri horretan kasua nola jorratu den jakitea eta horrek jendearen iritzi zein pentsamenduetan izandako eragina ezagutzeko probetxugarria dela uste dut.

Azkenik, emakume delinkueenteei ahotsa emateak eta horiei buruzko lanak egiten jarraitzeak duen garrantzia gogorarazi nahi dut. Izan ere, Estibaliz de Miguelek azaldutakoa gogoratuz, "espetxeratutako emakumeen bizipenak asko irakatsi ahal digute emakume guztiok bizi dugun genero-gatibutasunetik eratorritako bizipenei buruz eta, nola edo hala, emakume guztioi eragiten digu menderatze patriarkalak darabiltzan bitartekoei buruz" (De Miguel, 2016; 19). Hots, emakume presoak bizibilizatu eta entzuteak, libre garenoi bizi dugun errealitateaz asko irakatsi diezaguke.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- 10/1995 LEGEA, Espainiako Zigor Kodearen 1995eko azaroaren 23ko Lege Organikoa. (BOE 281, 1995eko azaroaren 24a).

- ABC. (2003). *Libro de Estilo ABC.* Barcelona: Ariel Lingüística.

- ACSUR-Catalunya. (2010). “Se buscan cómplices. Para un tratamiento informativo equilibrado de las mujeres inmigradas en los medios de comunicación”. *ACSUR-Catalunya* [On-line], eskuragarri hemen: http://observatoriorigen.org/wp-content/uploads/2015/11/ACSUR-Se_buscan_complices_CAST-BAJA.pdf [Kontsulta eguna: 2018/02/16].

- Almeda, Elisabet. (2003). *Mujeres encarceladas.* Barcelona: Ariel.

- Antony, Carmen. (2007) “Mujeres invisibles: las cárceles femeninas en América Latina”. *Nueva Sociedad* [On-line] nº 208, 73-85. eskuragarri hemen: http://nuso.org/articulo/las-carceles-femeninas-en-america-latina/ [Kontsulta eguna: 2018/02/20]

- Arenal, Concepción. (1991). *El visitador del preso.* Madrid: Asociación de Colaboradores con las Presas/ACOPE.

- Azaola, Elena. (2001). *El delito de ser mujer*. Bigarren edizioa. México: Plaza y Valdés.

- Bach, Marta et al. (2000). *El sexo de la noticia. Reflexiones sobre el género en la información y recomendación de estilo.* Barcelona: Icaria editorial.

- Canteras, Andrés. (1990). *Delincuencia Femenina en España.* Madrid: Ministerio de Justicia.

- Corral, Ismael. (2018). “Prisión permanente revisable”. *Iturralde y asociados, abogados* [On-line], eskuragarri hemen: http://www.iturraldeabogados.com/index.php/blog/item/34-prision-permanente-revisable [Kontsulta eguna: 2018/05/17].

- Council of Europe. (2016). *Council of Europe Annual Penal Statistics SPACE I- Prison Populations.* http://wp.unil.ch/space/files/2017/04/SPACE_I_2015_FinalReport_161215_REV170425.pdf

- De la Cuesta, Paz M. (1992). “Perfiles criminológicos de la delincuencia femenina”. *Revista de Derecho Penal y Criminología* 2, 219-239, eskuragarri hemen: https://repositorio.unican.es/xmlui/bitstream/handle/10902/3598/Cuesta%2C%20P.M.%2C%20de%20la%201992.pdf?sequence=1&isAllowed=y

- De La Fuente García, Mario. (2006). *La argumentación en el discurso periodístico sobre la inmigración*. Doktore tesia. León: Universidad de León (137-169).

- De Miguel, Estibaliz. (2015). “Mujeres usuarias de drogas en prisión”. *Praxis sociológica* [On-line] nº 19, 141-159, eskuragarri hemen:

http://www.praxissociologica.es/images/PDF/2015-19/praxis19-09.pdf [Kontsulta eguna: 2018/05/14]

___. (2016). "Emakume presoak. Begirada feminista bat", Gite-Ipes. *Kartzelak kalera! Emakumeak eta kartzela.* Bilbo: Gite-Ipes. (14-33).

- Dirección General de Instituciones Penitenciarias. (2009). *El sistema penitenciario Español*. Madrid: Ministerio del Interior.

- El Mundo. (1996). *Libro de Estilo El Mundo.* Madrid: Unidad Editorial.

- El País. (2008). *Libro de Estilo El País.* Madrid: Anzos.

- Fuentes, Juan. (2005). "Los medios de comunicación y el derecho peal". *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología,* nº 7, eskuragarri hemen: http://criminet.ugr.es/recpc/07/recpc07-16.pdf

- Fuller, Norma. (2008). "La perspectiva de género y la criminología: una relación prolífica". *Tabula Rasa,* nº 8, 87-110, eskuragarri hemen: http://www.scielo.org.co/pdf/tara/n8/n8a05.pdf

- Glassner, Barry. (2009). *The culture of fear. Why Americans are afraid of the wrong things: crime, drugs, minorities, teen moms, killer kids, mutant microbes, plane crashes, road rage & so much more.* Nueva York: Basic Books.

- INE. (2017). *Población inscrita en el padrón a 01/01/2017.* http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177012&menu=ultiDatos&idp=1254734710990

- Juaristi, Patxi. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Zarautz: UPV/EHU https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf

- Juliano, Dolores. (2011). *Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino.* Donostia: Tercera Prensa.

- Lagarde, Marcela. (1993) *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas presas y locas.* México: UNAM

- Larrauri, Elena eta Varona, Daniel. (1995). *Violencia doméstica y legítima defensa.* Barcelona: EUB.

- La Vanguardia. (2004). *Libro de redacción La Vanguardia.* Barcelona; Ariel. (17-72)

- Lombroso, Cesare eta Ferrero, Guglielmo. (1895). *The Female Offender.* Nueva York: Appleton y Londres Fisher Unwin.

- Macaya, Laura. (2013). *Esposas nefastas y otras aberraciones.* Barcelona: Diletants.

- Ministerio del Interior. (2017). *Anuario Estadístico del Ministerio del Interior*. Bilbao: Ministerio del Interior. http://www.interior.gob.es/documents/642317/1204854/Anuario+Estadistico+2016.pdf/6c02fffa-93c4-4838-b1d5-a882971c2cdc

- Miralles, Teresa. (1983). “La mujer: el Control Informal”, Bergalli, Roberto et al. *El pensamiento criminológico: estado y control.* Bogotá: Temis.

- Pollack, Otto. (1961). *The Criminality of Women*. New York: A.S. Barnes.

- Reguillo, Rossana. (2000). “La construcción social del miedo. Narrativas y prácticas urbanas”, Rotker, Susana eta Goldman, Katherine (Ed.). *Ciudadanías del miedo*. Venezuela: Nueva Sociedad.

- Rodríguez- Polo, Xosé Ramón eta Santillán, José Ramón. (2012). “Organización y rutinas del periodismo político en la prensa española de referencia”. *Observatorio (OBS),* nº 6, 215-234, eskuragarri hemen: https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5577080

- Sánchez, Mariana Noemí. (2004). “La mujer en la teoría criminológica” *Revista de Estudios de Género. La ventana,* nº 20, 240-266. México: Universidad de Guadalajara http://www.redalyc.org/pdf/884/88402011.pdf

- Santamaría, Enrique. (1994). “El cerco de papel… o los avatares de la construcción periodística del (anti)sujeto europeo”, De San Pedro, Patric. *Extranjeros en el paraíso*. Barcelona: Virus. (207-217).

- Sáez, Julio. (2017). "La ideología del racismo en las imágenes y las palabras de los medios: una reflexión teórica en tiempos de crisis", Lucrecia Escudero eta Teresa Velázquez (koord.) *Semiótica e Ideología(s).* Argentina: Universidad de Rosario. (175-186).

- Shaw, Clifford R. eta McKay, Henry D. (1942). *Juvenile delinquency and urban áreas*. Chicago: University of Chicago Press Books.

- Sutherland, Edwin H. (1939). *Principles of Criminology.* Filadelfia: Ed. Lippincott.

- Thomas, Williams Isaac. (1967). *The Unadjusted Girl.* Nueva York: Harper & Row.

___. (1907). *Sex and Society.* Boston: Little Brown.

- Van Dijk, Teun Adrianus. (2007). “El racismo y la prensa en España”, Bañón, Antonio Miguel (Ed.). *Discurso periodístico y procesos migratorios.* Donostia: Gakoa Liburuak. (27-80).

- Wagman, Daniel. (2002). “Estadística, delito e inmigrantes”. *Revista Mugak,* nº 19, eskuragarri hemen: http://mugak.eu/revista-mugak/no-19/estadistica-delito-e-inmigrantes

- Yugueros, Antonio Jesús. (2013). “La delincuencia femenina: una revisión teórica”. *FORO. Revista de Ciencias Jurídicas y Sociales, Nueva época.* Madrid: Universidad Complutense de Madrid. file:///C:/Users/usuario/Downloads/43943-66983-2-PB.pdf

- Zuloaga, Lohitzune. (2014). “La inseguridad ciudadana como construcción social”, Zuloaga, Lohitzune. *El espejismo de la seguridad ciudadana.* Madrid: Los libros de la Catarata. (15-34).

- Zuloaga, Lohitzune; De Miguel, Estibaliz eta Ortubay, Miren. (2017). *Experiencia de la detención policial en las mujeres de la comunidad autónoma de Euskadi (CAE).* Vitoria-Gasteiz: Emakunde.

# 7. ERANSKINAK

## 7.1. Ikerketa kuantitatiboa egiteko taulak

*El País* egunkariaren taulak:

| **Egunkaria** | El País | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 12a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 4 | 1 | 1 | - | 5 | 1 |
| **Zutabeak** | 15 | 3 | 2 | - | 17 | 3 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | El País | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 13a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 4 | - | 4 | - | 8 | - |
| **Zutabeak** | 15 | - | 8 | - | 23 | - |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | El País | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 14a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 1 | 1 | 1 | - | 2 | 1 |
| **Zutabeak** | 5 | 5 | 3 | - | 8 | 5 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | EZ | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | El País | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 15a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 2 | - | - | - | 2 | - |
| **Zutabeak** | 4 | - | - | - | 4 | - |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | El País | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 16a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 2 | 3 | 1 | 2 | 3 | 5 |
| **Zutabeak** | 4 | 12 | 6 | 4 | 10 | 16 |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | EZ | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

*El Mundo* egunkariaren taulak:

| **Egunkaria** | El Mundo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 12a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 3 | 1 | 2 | - | 5 | 1 |
| **Zutabeak** | 15 | 5 | 3 | - | 18 | 5 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | El Mundo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 13a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 5 | 1 | 2 | 2 | 7 | 3 |
| **Zutabeak** | 18 | 4 | 2 | 3 | 20 | 7 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | El Mundo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 14a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 3 | 1 | 3 | 2 | 6 | 3 |
| **Zutabeak** | 10 | 5 | 8 | 5 | 18 | 10 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| | | | | | | Iturria: Lanketa propioa |

| **Egunkaria** | El Mundo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 15a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 1 | 1 | - | 3 | 1 | 4 |
| **Zutabeak** | 5 | 5 | - | 8 | 5 | 13 |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | EZ | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| | | | | | | Iturria: Lanketa propioa |

| **Egunkaria** | El Mundo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 16a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 1 | 4 | 1 | 3 | 2 | 7 |
| **Zutabeak** | 5 | 27 | 1 | 10 | 6 | 37 |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| | | | | | | Iturria: Lanketa propioa |

## *La Vanguardia* egunkariaren taulak:

<table>
<tr><th>Egunkaria</th><td colspan="6">La Vanguardia</td></tr>
<tr><th>Data</th><td colspan="6">2018ko martxoaren 12a</td></tr>
<tr><th rowspan="3">Generoa</th><th colspan="2">Informazio generoak</th><th colspan="2">Iritzi generoak</th><th colspan="2">Guztira</th></tr>
<tr><th>Zuzena</th><th>Zeharka</th><th>Zuzena</th><th>Zeharka</th><th>Zuzena</th><th>Zeharka</th></tr>
<tr><td>2</td><td>1</td><td>1</td><td>-</td><td>3</td><td>1</td></tr>
<tr><th>Zutabeak</th><td>10</td><td>5</td><td>1</td><td>-</td><td>11</td><td>5</td></tr>
<tr><th>Azala</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th>Azaleko argazkia</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th>Nazionalitatea</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th>Perfil soziala</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th rowspan="2">“Ustezko” hitza Tituluan</th><th colspan="3">BAI</th><th colspan="3">EZ</th></tr>
<tr><td colspan="3"></td><td colspan="3">X</td></tr>
<tr><td colspan="7">Iturria: Lanketa propioa</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>Egunkaria</th><td colspan="6">La Vanguardia</td></tr>
<tr><th>Data</th><td colspan="6">2018ko martxoaren 13a</td></tr>
<tr><th rowspan="3">Generoa</th><th colspan="2">Informazio generoak</th><th colspan="2">Iritzi generoak</th><th colspan="2">Guztira</th></tr>
<tr><th>Zuzena</th><th>Zeharka</th><th>Zuzena</th><th>Zeharka</th><th>Zuzena</th><th>Zeharka</th></tr>
<tr><td>2</td><td>1</td><td>5</td><td>1</td><td>7</td><td>2</td></tr>
<tr><th>Zutabeak</th><td>10</td><td>5</td><td>6</td><td>4</td><td>16</td><td>9</td></tr>
<tr><th>Azala</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th>Azaleko argazkia</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th>Nazionalitatea</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th>Perfil soziala</th><td colspan="6">BAI</td></tr>
<tr><th rowspan="2">“Ustezko” hitza Tituluan</th><th colspan="3">BAI</th><th colspan="3">EZ</th></tr>
<tr><td colspan="3"></td><td colspan="3">X</td></tr>
<tr><td colspan="7">Iturria: Lanketa propioa</td></tr>
</table>

| **Egunkaria** | La Vanguardia | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 14a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 2 | 1 | 3 | 1 | 5 | 2 |
| **Zutabeak** | 10 | 1 | 5 | 1 | 15 | 2 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | EZ | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | La Vanguardia | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 15a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 1 | - | 1 | - | 2 | - |
| **Zutabeak** | 3 | - | 1 | - | 4 | - |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | EZ | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | La Vanguardia | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 16a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 1 | 2 | 1 | 1 | 2 | 3 |
| **Zutabeak** | 2 | 6 | 1 | 2 | 3 | 8 |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | EZ | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

*ABC* egunkariaren taulak:

| **Egunkaria** | ABC | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 12a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 6 | - | 4 | - | 10 | - |
| **Zutabeak** | 22 | - | 4 | - | 26 | - |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | ABC | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 13a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 9 | - | 2 | 6 | 11 | 6 |
| **Zutabeak** | 25 | - | 3 | 8 | 28 | 8 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **“Ustezko” hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | ABC | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 14a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 5 | 1 | 1 | 7 | 6 | 8 |
| **Zutabeak** | 13 | 7 | 1 | 13 | 14 | 20 |
| **Azala** | BAI | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | BAI | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | ABC | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 15a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 2 | 1 | - | 3 | 2 | 4 |
| **Zutabeak** | 6 | 4 | - | 4 | 6 | 8 |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | BAI | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |

| **Egunkaria** | ABC | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Data** | 2018ko martxoaren 16a | | | | | |
| **Generoa** | **Informazio generoak** | | **Iritzi generoak** | | **Guztira** | |
| | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** | **Zuzena** | **Zeharka** |
| | 1 | 2 | 1 | 4 | 2 | 6 |
| **Zutabeak** | 4 | 6 | 1 | 9 | 5 | 15 |
| **Azala** | EZ | | | | | |
| **Azaleko argazkia** | EZ | | | | | |
| **Nazionalitatea** | BAI | | | | | |
| **Perfil soziala** | EZ | | | | | |
| **"Ustezko" hitza Tituluan** | **BAI** | | | **EZ** | | |
| | | | | X | | |
| Iturria: Lanketa propioa | | | | | | |